

2007ko Memoria Donostia Kultura

San Telmo Museoa Museo San Telmo

Victoria Eugenia Antzokia Teatro Victoria Eugenia

Musika Música

Ikastaroak Cursos

Kultur Etxeak Centros Culturales

Liburutegiak Bibliotecas

Festak Fiestas

Erakusketak Exposiciones

Antzerki FERIA Feria de Teatro

Giza Eskubideen Zinemaldia Festival de Cine y Derechos Humanos

Zinema Cine

Beldurrezko Astea Semana de Terror

Dantza Danza

Antzerkia Teatro

Literatura Literatura

Jazzaldia Jazzaldia





- 3 Aurkezpena**
- 4 Balantze ekonomikoa eta diru laguntzak**
- 5 Komunikazioa eta Irudia**
Erregina Erregentea, 8 Tel.: 943 481161 Faxa: 943 481969
- 6-10 Liburutegi Zerbitzua**
Konstituzio plaza 1, Tel.: 943 481749 Faxa: 943 431895
 - Unitate Tekniko Zentrala**
Konstituzio plaza, 1 Tel: 943 481162 Faxa: 943 431895
 - Liburutegi Nagusia**
Alderdi Eder Tel.: 943 481488 Faxa: 943 481490
 - Liburutegi Nagusiko Haur Sekzioa**
Fermin Kalbeton, 25. Tel. 943 481999 Fax 943 481195
- 11-12 Kultur Ekintzako Zerbitzua**
Konstituzio plaza, 1 Tel: 943 481159 Fax: 943 481190
 - 13 Egia Kultur Etxea**
Baztan, 21. Tel.: 943 291514 Faxa: 943 287219
 - 14 Loiola Kultur Etxea**
Aralar, 17. Tel.: 943 454605 Faxa: 943 473498
 - 15 Casares-Tomasene Kultur Etxea**
Darieta bidea, 1 (Altza) Tel.: 943 351149 Faxa: 943 354046
 - 16 Altza Kultur Etxea**
Larratxo pasealekua, 55. Tel.: 943 396494 Faxa: 943 354046
 - 17 Ernest Lluch Kultur Etxea (Amara)**
Anoeta pasealekua, 7 (Amara). Tel.: 943 481919
 - 18 Okendo Kultur Etxea**
Nafarroa Etorbidea, 7. Tel.: 943 290672 Faxa: 943 290721
 - 19 Lugaritz Kultur Etxea**
Heriz, 20 (Antigua). Tel.: 943 310780 Faxa: 943 310782
 - 20 Larroxene Kultur Etxea**
Intxaurrondo, 57 (Intxaurrondo). Tel.: 943 291954 Faxa: 943 292746
 - 21 Intxaurrondo Berri Kultur Etxea**
Gaztela, 2. Tel.: 943 279343 Faxa: 943 275241
 - 22 Arte Eszenikoak**
Erregina Erregentea, 8 Tel.: 943 483860 Faxa: 943 481969
- 23-24 Victoria Eugenia Antzokia**
Argentina Errepublikak, 2 Tel.: 943 481160 Faxa: 943 481969
 - 25 Antzoki Zaharra**
Nagusia, 3. Tel.: 943 481966 Faxa: 943 481969
- 26-27 Donostiako Antzerki FERIA**
Tel.: 943 481966 Faxa: 943 481969
 - 28 Musika**
Erregina Erregentea, 8 Tel: 943 481900 Faxa: 943 483300
 - 29 Jazzaldia**
Erregina Erregentea, 8 Tel: 943 481900 Faxa: 943 483300
 - 30 Zinema eta Bideoa**
Erregina Erregentea, 8 Tel.: 943 481157 Faxa: 943 430621
 - 31 XVII. Fantasiako eta Beldurrezko Zinemaren Astea**
Erregina Erregentea, 8 Tel.: 943 481157 Faxa: 943 430621
 - 32 Giza Eskubideen V. zinemaldia**
Erregina Erregentea, 8 Tel.: 943 481157 Faxa: 943 430621
- 33-34 San Telmo Museoa**
Zuloaga plaza (behin-behineko helbidea: Andereño Elbira Zipitria, 1)
Tel.: 943 481580 Faxa: 943 481581
- 35 Aldi baterako erakusketak**
- 36-39 Festak**
Konstituzio plaza, 1 Tel.: 943 481175 Fax: 943 481177



Azken 15 urteetan etengabekoa izan da DONOSTIA KULTURAK ezagutu duen hazkunde eta garapena. Ildo horretan, joan den ekitaldian bi erronka nagusi hartu ditu bere gain gure erakundeak: Victoria Eugenia Antzokia, hiriko kultur eszenategi enblematikoa dena, berriro irekitzea, birmoldaketa sakona egin eta gero; eta San Telmo Museoa birmoldaketa-lanei ekitea, hiriko erreferente historiko garrantzitsuenetako bat azken hori.

Aipatu erronkei aurre egin diegu eta, aldi berean, ez ditugu alboratu kultur esparruko erakunde eragile bat garen neurrian, ezarrita genituen aldaketa-helburu garrantzitsuak, hain zuzen ere: zerbitzuak berrantolatzea, kudeaketa modernizatzea, prozedurak erraztea eta zerga-kudeaketaren esparruan hobekuntza jakin batzuk egitea.

Eta adierazitako guztia lortzeko, gure zerga-erregimena aldatu behar zen ezinbestean. Horrela, KULTUR UDAL PATRONATUA **organismo autonomo** bat izatetik, DONOSTIA KULTURA **enpresa-erakunde publiko** izatera pasa zen. Azken finean, DONOSTIA KULTURA zuzenbide publikoko erakunde bat da eta garatzen duen jarduera antolamendu juridiko pribatua jarraituz egiten du, neurri batean. Horrela, beraz, baldintza abantailatsuak lortzen dira arte-ikuskizunak kudeatzeko orduan, esate baterako. Eraldaketa nagusi horrekin batera, bi sozietate instrumental sortu ditugu: alde batetik, SAN TELMO MUSEOA SA, jarduera museistikoaren kudeaketaz arduratzen dena, eta, bestetik, VICTORIA EUGENIA ANTZOKIA SA, arte eszeniko, musika eta zinemarekin erlazionatutako jardueren kudeaketaz arduratzen dena.

2007an aldaketa eta hobekuntza handiak ezagutu ditu DONOSTIA KULTURAK. Eta erdietsitako lorpenetan zeresan handia izan dute 2007ko ekitaldian gure erakundera gehitu diren bi unitate berriek. Orain arte Musika Bulegoak (Donostiako Sustapenaren barruan) garatu dituen jardueraz eta lehengo KTEk (lehenagotik jada ez zuen erlaziorik turismoaren sustapenarekin erlazionatutako alderdiekin) garatzen zituen jardueraz eta jai-programaz arduratzen dira aipatu bi unitate berriak.

Guztiarekin, aldaketa-prozesua eta moldaketa-prozesua kontu handiz eraman dira aurrera. Langile guztien baldintzak errespetatu dira une oro eta kontu handi eduki da alor bakoitzeko ohiko zerbitzuak eta programazioa ez eragiteko. Horrela, beraz, pixkanaka erdietsi ditugu lorpenak (ikus egutegi-taula) eta hiriko kultur jarduerak berdin-berdin jarraitu du.



EGUTEGIA

- Kultur Zerbitzuaren berrantolaketa-espeditentea onartu eta hasi da.
2007.01.26 Gobernu Batzordea.
- Kultura Zerbitzua berrantolatzeke memoria onartu da. Musika Bulegoa eta KTE (Festak) barne hartu dira.
2007.02.16 Osoko Bilkura
- EEP estatutuen hasierako onarpena eman da
Osoko Bilkura 2007.02.27
- KUP DONOSTIA KULTURA EEP bihurtu da
2007.04.27
- Musika Bulegoa eta KTE (Festak) barne hartu dira behin betiko
2007.06.01
- Bi sozietate anonimoak sortu dira (Victoria Eugenia SA eta San Telmo SA)
2007.06.01

2008. urtean gaudela, honako hau da emaitza: guztion artean erakunde berri bat diseinatu dugu, DONOSTIA KULTURA-EEP, Donostiak bezalako hiri batek, kulturaren ikuspegitik handizalea den hiri batek, izango dituen erronkei erantzuteko egokia.

Balantze ekonomikoa



PROGRAMA	GASTUAK	SARRERAK
Zerbitzu Orokorrak	406.681,84 €	16.428.027,64 €
Komunikazioa eta Irudia Unitatea	651.896,59 €	91.727,22 €
Liburutegi Zerbitzua	708.905,42 €	128.757,35 €
Kultur Ekintza Zerbitzua	2.648.500,00 €	363.000,00 €
San Telmo Museoa	445.119,00 €	126.173,00 €
Victoria Eugenia Antzokia	3.214.995,88 €	1.029.492,81 €
Antzoki Zaharra	167.958,75 €	49.601,77 €
Antzerki Unitatea	212.437,79 €	154.853,53 €
Antzerki FERIA	417.643,92 €	279.070,42 €
Zinema Unitatea	188.788,22 €	149.388,19 €
Fantasiazko eta Beldurrezko Zinemaren Astea	339.587,71 €	314.050,26 €
Festak	2.035.924,35 €	1.983.281,76 €
Musika Unitatea	234.403,00 €	198.000,00 €
Jazzaldia	1.612.500,00 €	1.003.500,00 €
Guztira	13.285.342,47 €	22.298.923,95 €
Langileen gastuak	8.164.214,67 €	
Inbertsio-gastuak	849.366,81 €	
Guztira	22.298.923,95 €	22.298.923,95 €

Donostia Kulturak emandako diru laguntzak



6 Diru laguntza hitzartu (hainbat elkarterekin egindako hitzarmenen bitartez)

24.702,00 €

11 Zuzeneko diru laguntza

55.094,76 €

77 Diru laguntza hainbat elkarteri, kultur programak eta jarduerak antola ditzaten

68.764,00 €

Hitzarmena Musika eta Dantza Eskolarekin

41.475,85 €

GUZTIRA

190.036,61 €

Donostia Kultura Festak emandako diru laguntzak

233 diru laguntza hainbat elkarteri, festetako programak eta jarduerak antolatzeko:

47 haur-danborrada 42.800,00 €

99 helduen danborrada 138.763,90 €

15 kalderero-konpartsa 6.190,42 €

23 inauteri-konpartsa 40.904,46 €

29 auzotako jaiak 172.320,00 €

20 Olentzero 3.095,21 €

GUZTIRA 404.073,99 €

2 zuzeneko diru laguntza

Bertsolari Eguna 7.212,15 €

Abuztuaren 31ko festa 2.538,07 €

GUZTIRA 9.750,22 €

Hainbat talderi emandako

diru laguntza finalistak **3.627,54 €**

Komunikazioa eta irudia



Donostia Kultura gure hirian garatzen eta bizitzen den kultur eskaintzaren protagonista izan da eta, are gehiago, Victoria Eugenia Antzokia berriro ireki zenetik. Izan ere, udal kulturaren benetako eragilea izateaz gain, azpimarratzekoa da gure erakundeak ikus-entzule guztiengana iristeko egin duen ahalegin handia. Horrela, bada, Victoria Eugenia Antzokiko programazioak bat egin du orain arte eskaini izan denarekin, hain zuzen ere: Arte Eszenikoak, Zinema, Artea, Literatura eta Musika. Eta, horiez guztiez gain, gure ekipamenduetan, hala nola Kultur Etxeetan, Liburutegietan, San Telmo Museoan, eta gainerako espazio eszenikoetan (Antzoki Zaharra, Lugaritz eta Egia) gure jarduera eta zerbitzu propioak eskaintzen jarraitu dugu. Amaitzeko, ezin ditugu ahaztu Donostia Kultura EEPan bi unitate berri sortu direla eta, Musikakoa eta Jazzaldikoa eta Festetakoa (lehenago KTE), aurten gehitu ditugun komunikazio-ekintzak eta -programak.

2007an sustatu ditugun argitalpenen artetik, "Victoria Eugenia Antzokiaren historia" izeneko liburua azpimarratu nahi dugu. Victoria Eugenia berriro ireki dela eta argitaratu da. Azpimarragarriak dira, halaber, Hautsa Kenduz Altzako ohiko bilduma, 2007 Beldurrezko Astearen monografikoa eta Raoul Walschi buruz egindako Nosferatu argitalpena.

-Pentsaurrekoak	220
-Literatur aurkezpenak	135
-Programak (liburuxkak, kartelak, gonbidapenak)	265
-Prensa-oharrak	300
-Iragarkiak idatzizko prentsan	400
-Saio laburrak irratietan	85
-Telebistetan	397



Altzako Irrati Tailerra



CASARES IRRATIA 107.4 FM (24 orduko emanaldia)
2007an 11 ikastaro eta 4 tailer eman dira.
135 ikaslek parte hartu dute
426 elkarrizketa egin dira.

Donostia Kultura txartela



47.000 bazkide baino gehiago dira, dagoeneko, Donostia Kulturak eskaintzen dituen zerbitzuen eta abantailen onuradun: beherapenak ikuskizunetan eta ikastaroetan, maileguak liburutegietan, sarreren zozketak, hileko agendaren bidalketa eta abar. Hiriko kultura baldintza onenetan gozatzeko abantailak eskaintzen zaizkie eskusiban DK txartela duten herritarrei.

2007an 5.000 altatik gora erregistratu dira, Donostia Kultura eta Kutxa-Donostia Kultura txartelen bitartez.

Liburutegi Zerbitzua

(Udal Liburutegi Publikoen Sarea)



Liburutegi kopurua:	15
Bilduma modernoko fondoak	273.337
Altak	29.978
Bajak	15.837
Bildumaren hazkundearen %	5,46%
Bilduma berritzearen %	10,97%
Bilduma historikoko fondoak	65.000
Bilduma historiko katalogatua	45.902
Mikrofilm-mikrofitzak	8.109
Erabilera publikoko ordenagailuak	251
Internet/cd-rom-etarako ordenagailuak	224
OPAC	27
OPAC kontsultak	532.612
WEB kontsultak	30.475
Hemeroteka digitaleko kontsultak	8.565
Liburutegi Zerbitzuetako bazkideak	83.253
2007ko bazkide berriak	6.098
Liburutegietara egindako bisitaldiak	938.436
Eguneko bisiten batez b.	3.139
Maileguak	451.692
Eguneko maileguen batez b.	1.511
Internet/cd-rom/wi-fi kontsultak	132.045
KZgunean	93.065
Aretoetan	33.200
e-Donostia aretoetan	5.780
Jarduera kopurua	655
Liburuxkak, gidak, berritasunen orriak	904
Erakusketak	16

Aurtengoan ondorengo alderdiak nabarmendu behar dira errendimenduari begira: hasteko, mailegu kopuruari eustea lortu da eskuarki, bai eta liburutegietako bisita kopuruari ere. Maileguei erreparatu eta euskarri arabera, gutxiago izan dira mailegatutako soinu-diskoak eta cd-romak eta, ondorioz, euskarri horietan egiten diren eskuratzeak aztertzea komeni da. Liburua da gehien mailegatzen den euskarria, helduen artean zein haurren artean. Ugaritu egin dira bertaratu gabe gure zerbitzuak erabiltzen dituzten erabiltzaileak eta horren erakusle dira webeko kontsultak, OPACen egindakoak eta liburutegietan Interneten erabilerak izandako hazkundera. Aurtun 10,97koa izan da berritze-tasa, hortaz, gure liburutegietan berrikuntzak egon direla aipatu behar da: 2006. urtean baino 5.173 agiri berri gehiago ekarri dira eta Alderdi Eder Liburutegiko fondoen artean garbiketa eta berritze garrantzitsua egin da. WI-FI zerbitzua, alegia, modu askean kablerik gabe Internetera konektatzeko zerbitzua, aurtun jarri da martxan aipatu liburutegian.

Kristina Eneako Liburutegiak 2006an ireki zituen ateak estreinako eta kudeaketa independentea egiten da. Berrito ere azpimarratu nahi dugu oso garrantzitsua dela agiri berriak gehitzea, ez baita berrikuntza nahikoa ekarri. Bilduma historiko katalogatuari dagokionez, 6.047 agiri berri gehitu dira. Gainerako agiriak Alderdi Ederreko fondoen artean egindako garbiketarik hartu dira. Ezinbestekoa zen garbiketa egitea leku faltagatik. Euskarazko materiala gehitzeko lanean jarraitzen dugu, nahiz eta emaitzak oso geldoak ari diren izaten eta oraindik ez den lortu OPACen islarik edukitzea. EAEko Liburutegien Legeak, urriaren 26ko 11/2007 Legeak hain zuzen ere, bost urteko epea uzten du gure katalogo elebiduna osatzeko.

Aurtengo proiekturik garrantzitsuenak adierazi dira ondoren:

- Digitalizazio-proiektua gauzatu da. Prentsa digitalizatuzko web berria izan da 2007an gauzatu den proiekturik garrantzitsuenak. 33 argitalpen desberdinetako 127.343 orri digitalizatu dira; 1830 eta 1937 arteko data dute orriek. Internetetik donostiarron ondarea ezagutu daiteke web honetan. Maila teknikoari dagokionez, PDF eta TIFF formatuak deskargatzeko aukera ematen da. Harrera bikaina lortu du erabiltzaileen artean weberra sartzeko moduak –argitalpenen aurkibidea eta zoom egiteko aukera ematen dira- eta uztailek jada 8.565 kontsulta egin dira.

- Asun Balzolaeren dohaintzarekin Haur Liburuaren Dokumentazioguneak haurren euskal literaturaren inguruan egiten duen lana aitortu da. Asun Balzola irudigileak dohaintza garrantzitsua egin dio Haur Liburutegi Nagusiko Dokumentazioguneari: liburuez gain, monografia irudidunak eta bere lanen 1.200 zirriborro original inguru eman dizkio. 2008an katalogatu nahi dira aipatu fondoak eta jendarean jarri ondoren.

- Bilgunea izeneko Eusko Jaurlaritzaren katalogo kolektiboan parte hartzen jarraitu dugu, Madrilgo Goethe Institut-ekin lan egin dugu eta Gazteria, Hezkuntza eta Giza

Eskubideen arloarekin eta Haur Liburuaren Dokumentaziogunearekin batera lan egin dugu eskola-mediatekak garatzeko eta hobetzeko. Aipamen berezia merezi du, ildo horretan, Arantza Azkue Ama Ikastolako Amondarain Mediatekaren kudeaketa bereziak. Martutenen ireki zenetik, haurrentzako zerbitzu propioak eskaintzeaz gain, helduentzako zerbitzuak eskaintzen dira –Loiolako KEko Liburutegiko liburuak erabili dira- eta prentsa kontsultatzeko zerbitzua eta Internet eskaintzen dira. Eskola-ordutegitik kanpo liburutegi-zerbitzuaren ardurapean geratzen da mediatekaren kudeaketa.

Beste urte batzuetan bezala, hainbat argitalpen eta banaketa-zerrenda argitaratu ditugu gure eskaintza ezagutzera emateko: bi irakurketa-gida osatu ditugu –bat udakoa, “28 Libros muy peligrosos”, eta negukoak bestea, “Al calor del libro”-, Liburuaren Eguneko orri-marka eta Liburutegiaren eguneko kartela (biak Belén Lucas irudigilearenak), Blog del Sedic delakoan aipamen berezia eduki zuena, aurkeztu dira eta Liburutegien Sareko zerbitzuen gida berria osatu da.

Amaizteko, DK-literatura jarduera garatzen jarraitu da, Gipuzkoako Liburu Saltzaileen Gremioaren eta Aula de Cultura DV-ren artean hitzartutakoaren ildotik. Ekimen horren esutik, idazle ugari hurbildu dira gure hirira: Pablo Martín Asuero, Anjel Lertxundi, Raúl Guerra Garrido, eta abar. Bestalde, Paul Auster eta Jorge Herralde izan dira gurean Donostiako Zinemaldian parte hartzen. Eta Literaturak Kultura Jaialdiaren aldeko apustu garbia egin dugu. Oraingoan hirugarren edizioa antolatuta da eta Luisa Futoransky, Manuel Vicent, Joseba Irujo eta Juan Cruz izan dira gurean, besteak beste. Gure sarean eskaintzen den programazioan parte-hartze oso altua lortzen dute, bestalde, literatur tertuliek, euskaraz zein gaztelaniaz egindakoek, eta ipuinaren orduak –estreinako Donostia Ospitalean egin dira ospitaleratuta dauden ume-entzako–.

Liburutegi Zerbitzua

(Udal Liburutegi Publikoen Sarea)



Liburutegi Nagusia - Alderdi Eder

Fondo historikoa ¹	65.000
Fondoak	41.372
Altak	4.677
Bajak ²	8.708
Bazkide berriak	1.373
Bisitariak	287.569
Eguneko bisiten batez b.	962
Maileguak	106.597
Eguneko maileguen batez b.	357
Internet/cd-rom kontsultak	25.154
Erabilera publikoko ordenagailuak	28
Prentsa historikoan egindako kontsultak	906
Ikus-entzunezkoetan egindako kontsultak ¹	1.352
Jarduera kopurua	140
Parte-hartzaileak	3.151
Liburuxkak, gidak	152
Erakusketak ³	13



Liburutegi Nagusia - Haur Sekzioa Haur Liburuen Dokumentaziogunea

Fondoak	26.826
Altak	1.423
Bajak	595
Bazkide berriak	432
Bisitariak	35.418
Eguneko bisiten batez b.	120
Maileguak	24.705
Eguneko maileguen batez b.	83
Internet/cd-rom kontsultak	2.942
Erabilera publikoko ordenagailuak	7
Jarduera kopurua	67
Parte-hartzaileak	1.229
Liburuxkak, gidak	58



Biblioteca C.C. Altza (Larratxo)

Fondoak	10.662
Altak	1.147
Bajak	379
Bazkide berriak	95
Bisitariak	17.047
Eguneko bisiten batez b.	77
Maileguak	11.901
Eguneko maileguen batez b.	53
Internet/cd-rom kontsultak	2.410
Erabilera publikoko ordenagailuak	4
Jarduera kopurua	31
Parte-hartzaileak	406
Liburuxkak, gidak	45



¹ Gutxi gorabeherako kopurua. Katalogazio-prozesuan dago fondoak: 2007 amaieran katalogatuta egotea aurreikusi da: 45.902.

² Fondoak bajak eta ordezkapenak barne hartu dira

³ 8 erakusketa Alderdi Eder Liburutegian, 5 San Jeronimo jarduera-aretoan.

Liburutegi Zerbitzua

(Udal Liburutegi Publikoen Sarea)



Casares - Tomasene Kultur Etxeko Liburutegia (Altza)

Fondoak	21.491
Altak	2.780
Bajak	570
Bazkide berriak	449
Bisitariak	51.041
Eguneko bisiten batez b.	171
Maileguak	36.305
Eguneko maileguen batez b.	121
Internet/cd-rom kontsultak	16.193
Erabilera publikoko ordenagailuak	30
Jarduera kopurua	35
Parte-hartzaileak	585
Liburuxkak, gidak	71

Egia Kultur Etxeko Liburutegia

Fondoak	25.088
Altak	2.359
Bajak	797
Bazkide berriak	296
Bisitariak	43.506
Eguneko bisiten batez b.	195
Maileguak	30.630
Eguneko maileguen batez b.	137
Internet/cd-rom kontsultak	9.888
Erabilera publikoko ordenagailuak	26
Jarduera kopurua	55
Parte-hartzaileak	1.154
Liburuxkak, gidak	55
Erakusketak	1

Ernest Lluch Kultur Etxeko Liburutegia (Amara)

Fondoak	26.250
Altak	2.964
Bajak	472
Bazkide berriak	996
Bisitariak	151.621
Eguneko bisiten batez b.	509
Maileguak	69.543
Eguneko maileguen batez b.	233
Internet/cd-rom kontsultak	25.488
Erabilera publikoko ordenagailuak	41
Jarduera kopurua	46
Parte-hartzaileak	850
Liburuxkak, gidak	92
Erakusketak	2

Intxaurrondo Berri Kultur Etxeko Liburutegia

Fondoak	20.094
Altak	2.966
Bajak	787
Bazkide berriak	288
Bisitariak	51.364
Eguneko bisiten batez b.	230
Maileguak	33.806
Eguneko maileguen batez b.	151
Internet/cd-rom kontsultak	3.407
Erabilera publikoko ordenagailuak	5
Jarduera kopurua	26
Parte-hartzaileak	247
Liburuxkak, gidak	51



Erakusketak



Liburutegi Zerbitzua

(Udal Liburutegi Publikoen Sarea)



Larrotxene Kultur Etxeko Liburutegia (Intxaurreondo)

Fondoak	10.525
Altak	1.405
Bajak	549
Bazkide berriak	151
Bisitariak	13.429
Eguneko bisiten batez b.	60
Maileguak	9.432
Eguneko maileguen batez b.	42
Internet/cd-rom kontsultak	3.497
Erabilera publikoko ordenagailuak	22
Jarduera kopurua	40
Parte-hartzaileak	1.235
Liburuxkak, gidak	23



Loiola Kultur Etxeko Liburutegia

Fondoak	21.001
Altak	1.988
Bajak	697
Bazkide berriak	171
Bisitariak	34.942
Eguneko bisiten batez b.	157
Maileguak	15.954
Eguneko maileguen batez b.	72
Internet/cd-rom kontsultak	4.661
Erabilera publikoko ordenagailuak	12
Jarduera kopurua	50
Parte-hartzaileak	704
Liburuxkak, gidak	67



Lugaritz Kultur Etxeko Liburutegia (Antigua)

Fondoak	23.596
Altak	2.105
Bajak	469
Bazkide berriak	602
Bisitariak	40.761
Eguneko bisiten batez b.	183
Maileguak	28.506
Eguneko maileguen batez b.	128
Internet/cd-rom kontsultak	7.853
Erabilera publikoko ordenagailuak	26
Jarduera kopurua	30
Parte-hartzaileak	963
Liburuxkak, gidak	102



Okendo Kultur Etxeko Liburutegia (Gros)

Fondoak	27.032
Altak	3.325
Bajak	545
Bazkide berriak	1.100
Bisitariak	151.088
Eguneko bisiten batez b.	519
Maileguak	74.552
Eguneko maileguen batez b.	256
Internet/cd-rom kontsultak	28.682
Erabilera publikoko ordenagailuak	37
Jarduera kopurua	99
Parte-hartzaileak	2.930
Liburuxkak, gidak	59



Liburutegi Zerbitzua

(Udal Liburutegi Publikoen Sarea)



Urgull Mendiko Udako Liburutegia

Fondoak	3.859
Altak	338
Bajak	1.239
Bazkide berriak	13
Bisitariak	3.385
Eguneko bisiten batez b.	44
Maileguak	347
Eguneko maileguen batez b.	5
Internet/cd-rom kontsultak	393
Erabilera publikoko ordenagailuak	4
Jarduera kopurua	22
Parte-hartzaileak	512
Liburuxkak, gidak	1



Udal Musika eta Dantza Eskolako Liburutegia

Fondoak	7.497
Altak	898
Bajak	30
Bazkide berriak	115
Bisitariak	50.532
Eguneko bisiten batez b.	221
Maileguak	8.317
Eguneko maileguen batez b.	36
Internet/cd-rom kontsultak	856
Erabilera publikoko ordenagailuak	7
Liburuxkak, gidak	115



San Telmo Museoko Liburutegia

Fondoak	6.475
Altak	1.158

Kristina Enea Liburutegia

Fondoak	1.569
Altak	445
Bajak	0
Bazkide berriak	17
Bisitariak	1.987
Eguneko bisiten batez b.	6
Maileguak	8.317
Eguneko maileguen batez b.	1
Internet/cd-rom kontsultak	621
Erabilera publikoko ordenagailuak	2
Jarduera kopurua	2



Amondarain Mediateka. Arantzazuko Ama Ikastola

(Martuteneko erabilerari buruzko datuak bakarrik)

Bidalitako loteak	2
Maileguak	910
Eguneko maileguen batez b.	6,3
Bisitariak	4.745
Eguneko bisiten batez b.	33

Kultur Ekintzako Zerbitzua

(Kultur Etxeen Sarea)



Kultur Ekintzako Zerbitzuaren helburu nagusia hiritar guztiei kultur zerbitzuen eta jardueren aukera zabala eskaintzea da, kultur ekipamendurako sare baten eta esku-hartzeko hainbat programaren bidez.

Bederatzi dira sarea osatzen duten kultur etxeak:

Casares-Tomasene eta Altza Kultur Etxeak (Altzan)
Okendo Kultur Etxea (Groses)
Larrotxene eta Intxaurrondo Berri Kultur Etxeak (Intxaurrondon)
Loiola Kultur Etxea (Loiolan)
Lugaritz Kultur Etxea (Antiguan)
Egia Kultur Etxea (Egian)
Ernest Lluch Kultur Etxea (Amaran)

Hona hemen 2007an kultur etxe hauetan eskaini diren jardueren eta zerbitzuen eta erregistratu diren erabiltzaileen kopuruak:

JARDUERAK	Kop. Erabiltzaileak	
Antzerkia	215	31.834
Dantza	35	10.107
Zinema	93	15.614
Bideoa	69	2.704
Musika	94	16.844
Hitzaldiak	101	5.315
Erakusketak	74	41.313
Elkarteen bilerak eta jarduerak	1.390	27.621
Aretoen alokairua	71	9.077
Liburutegiko jarduerak	412	9.075
Hainbat	66	14.978
GUZTIRA	2.620	184.482

ZERBITZUAK ⁴	Erabilerak	
Liburutegiko bisitak		554.800
Ikasteko gela		8.179
E-donostia.net (Internetarako sarbidea) ⁵		5.780
KZgunea (Internetarako sarbidea) ⁶		68.326
Kzgunea (IT txartela) ⁷		4.950
GUZTIRA		642.035

PRESTAKUNTZA	Kop. Erabiltzaileak	
2007-2008 ikastaroak	159	2.468
Ikastaro puntualak	40	896
Udako ikastaroak	3	44
KZgunea ikastaroak	117	967
E-donostia.net ikastaroak	64	630
GUZTIRA	383	5.005

⁴ Espezializazioekin erlazioz ataturako zerbitzuak (irratia, bideoa...) kultur etxe bakoitzari dagokion atalean adierazi dira.

⁵ Udal Sustapen Elkartearekin batera kudeatua. Loiolako eta Larrotxene kultur etxeetan.

⁶ Eusko Jaurlaritzarekin batera kudeatua. Ernest Lluch, Egia, Casares-Tomasene eta Lugaritz kultur etxeetan.

⁷ Informazioaren Teknologiatan oinarrituko gaitasunak dituela ziurtatzen duen txartela.

Urte honetan, zentro berriak eraikitzeko ardura duten teknikariek eta arkitektoekin batera, hemendik gutxira Aieten eta Intxaurrondo eraikitzen hasiko diren zentrozen beharrei erantzuteko programak definitzeko lanei ekin zaie.

Aurten, halaber, Kaleidos red Fundazioaren oinarriak finkatzeko lan egin dugu. Aipatu Fundazioko kide dira hainbat udal. Fundazioak helburutzat du inguruko ekipamenduen plangintza, kudeaketa eta funtzionamendurako ereduak definitzea. Horren adibide dira gure kultur etxeak.



Kultur Ekintzako Zerbitzua

(Kultur Etxeen Sarea)



Programazioari dagokionez, ondorengo jarduerak dira aipatzekoak: Poltsikoko Antzerkiaren Jaialdia, Kaleko Zinemaren Jaialdia, Kaleko Antzerkiaren Jaialdia, antzerki-, musika- eta dantza-programazio egonkorra (helduentzat, gazteentzat zein haurrentzat), Bideoaldia, Abesbatzen Astea, Literaktum eta abar. Hortaz, hiritarren eskaera eta kezka betetzera bideratutako jarduerak-sorta handia eskaintzen da.

Kultur Ekintzako Zerbitzuak, lurraldearen esparruan esku hartzeaz gain, helburutzat du populazioaren sektore ezberdinei ere arreta eskaintzea. Lanerako ildo hori jarraituz, biztanleen sektore jakinetara bideratutako kultur zerbitzuak eta jarduerak proposatzen eta eskaintzen dira. Eskaintza hori, gainera, sektore jakin horren ezaugarri eta behar berezietara egokitzen da.

Helburu honekin, eta udalaren esparruko arlo batzuen lankidetzarekin, ondorengo zerbitzuak sartu dira azken urteetan kultur etxeetan:



Gaur egun hiru Haurtxoko daude Okendo, Ernest Lluç eta Lugaritz Kultur Etxeetan hain zuzen ere, eta 6-12 urte arteko neska-mutilentzako jarduerak eta zerbitzuak eskaintzen dituzte.

Amarako Haurtxokora hiri osoko haurrak hurbiltzen dira eta erabilera gero eta handiagoa dela baieztatzen da. Groseko Haurtxokoa auzoan eta hiri osoan erabat integratuta dago eta haurrei egindako eskaintzaren erreferente bihurtu da. Antiguako Haurtxokoa langile gehiago behar izan dira auzoko neska eta mutilen eskaria gero eta handiagoari erantzuteko.



Lau Gazteleku daude, hiriko beste hainbat kultur etxetan banatuta, eta 13 eta 17 urteko nerabeentzako jarduerak eta zerbitzuak eskaintzen dituzte guztiek. Balioen hezkuntza eta prestakuntza indartzea bilatzen da.

Amarako Gaztelekuak ezaugarri anitzeko nerabeek bat egitea lortu du azken urtean eta, bide batez, ekipamenduaren dinamika aberastea lortu da. Antiguako Gaztelekuan izugarri ugari da nerabe kopurua eta Gaztelekuaren espazioa eta ordutegia zabaltzeko behar izan dira. Amaitzeko, Gros eta Egiako Gaztelekuetan nerabeen parte-hartze aktiboa eta arduratsua indartzea lortu da.

MUSIKAGELA

Zerbitzu hau Egiako Kultur Etxean ematen da eta hiriko musika-taldeei entsegu-areto bat aldi baterako uztean datza. Zerbitzu hau zazpi entsegu-gelak, DJentzako tailer batek eta musika-instrumentuak gordetzeko biltegi batek osatzen dute. 2007. urtean zerbitzua indartzea lortu da, eta betetze- edo erabilera-maila bikaina izan da.



PLUS 55

55 urteik gorakoei zuzendutako aisialdirako programa hau hiriko kultur etxeetan eskaintzen da, eta Gizarte Ongizaterako atalak eta Donostia Kulturak sustatzen dute. Talde

honetako boluntarioek bultzatutako eta jorratutako egitasmoak eta ekimenei sostengua ematea da zerbitzu honen helburua, baita Kultur Etxeak 55 urte baino gehiago duten pertsonentzako sozializazio-zerbitzugune bilakatzea ere.

2007an Plus 55 programak nabarmenki hobetu du bere eskaintza. Alde batetik, programaren barruan hainbat jarduerak garatu dira antzemandako beharrei erantzuteko, hala nola Larunbatak dantzan, Ibilaldiak Donostian, Altza Ezagutuz, Gimnasia Hondartzan, Narratzailearen Txokoa, Osasunaren Jardunaldiak, Arteak, Afektibitateak, eta abar. Eta, bestetik, ekimen gehiago aurrera ateratzeko hainbat elkarte eta erakunderi aholkularitza eman diegu eta beraiekin batera lan egin dugu.

2007an, beraz, hiriko aisialdiko eskaintza ezagutu nahi duten adineko pertsona guztiei horretarako bitarteko bat jarri zaie eskura. Guztira jaso ditugun kontsultak 1.347 izan dira.

Hona hemen zerbitzu horien onuradun izan diren erabiltzaileen kopurua:

SEKTORE ZERBITZUAK	Jarduerak	Erabiltzaileak
Haurtxoko	196	7.784
Gazteleku	246	3.793
Plus 55	243	8.165
Musikagela	40 (taldeak)	6.156
GUZTIRA		25.898

Orain arte aipaturikoaz gain, Kultur Ekintzako Zerbitzuak, beste arlo eta erakunde batzuekin lankidetzan, herritar-sektore jakinei bideratutako jarduerak diseinatu eta prestatu ditu kultur etxe guztietan. Programa horietako batzuen adibide dira, esaterako: Gaztemaniak!, Donostia Mundu Artean, Gabonak Zuretzat, Irudi Biziak, Ikasgelak, Larunbatak Dantzan, Literatur Zita, Emakumearen Asteak eta abar. Aurten, Donostikluba zirkuitua programa, bereziki gazteengana zuzentzen den programa, azpimarratu behar da. Espazioan eta denboran gehiagora egin du programa honek (urte osoan eta kultur etxe guztietan eskaintzen da). Azpimarratzekoa da, halaber, Donostikluba Jaialdia, Egiako Kultur Etxean urrian antolatzen dena.

Azkenik, kultur etxerik ez den inguruetan, lankidetzak-hitzarmenak sinatu dira bertako elkarte garrantzitsuenekin, kultur programak eta jarduerak garatu ahal izateko. 2007. urtean, hitzarmenak sinatu ziren ondoko erakundeekin:

- Igeldoko Herri Kontseilua (Igeldo)
- Etxadi Kultur eta Kirol Elkarteak eta Lantxabe Elkarteak (Aiete)
- Añorga Kultur eta Kirol Elkarteak (Añorga)
- Mundo Nuevo Elkarteak (Amara Zaharra)
- Zubietako Herri Batzarra (Zubietako)



JARDUERAK

	Kop.	Erabiltzaileak
Antzerkia	41	7.873
Dantza	24	4.047
Zinema	3	610
Bideoa	1	65
Musika	26	8.800
Hitzaldiak	3	89
Ikastaroak eta tailerrak	39	431
Erakusketak	20	11.225
Elkarteen bilerak eta jarduerak	89	1.782
Alokairuak	34	7.189
Liburutegiko jarduerak	55	1.154
GUZTIRA	335	43.265

ZERBITZUAK

		Erabilerak
Liburutegiko bisitariak		43.507
Gazteleku		3.845
Ikasgela		5.730
Musikagela	talde-kop. 40	6.156
KZgunea		7.027
KZgunea (IT Txartela)	122 proba	689
Erabilera publikoko ordenagailuak	30	
GUZTIRA		66.954

Ireki zenetik hamar urte igaro dira eta Egiako Kultur Etxea erreferente bihurtu da auzoan. Eskaintzen diren jarduerak eta zerbitzu guztietan -Liburutegia, Gazteleku, Kzgunea, ikastaroak, kaleko antzerkia zein zinema- parte-hartze handia egiten dute egitarrek.

Gazteszena erreferentziako gune bihurtu da hiriko kultur eskaintzaren barruan, musika, dantza eta antzerkiaren eskaintzaren barruan batik bat. Horrela, sortu zenetik berezi egin duten helburuei eutsi die eta eskaintza garaikide bikaina egiteko lan egin da; era berean, ikusle berriak erakartzeko lan egin da.

Horrekin guztiarekin batera, Musikagela, Dantza Elkartea eta AET (Arte Eszenikoen Tailerra) azpimarratu behar dira. Bertako entsegu-lokaletan erantzuten zaio musika, dantza eta antzerkia, hurrenez hurren, sustatzeko hartutako konpromisoari. Gainera, artearen inguruan mugitzen diren gazteentzako topagunea ere bada.

Kultur Etxeak hiru erakusketa-areto ditu eta artista gazteenen lanak ezagutzera emateko erabiltzen dira. Espaziarte, gainera, sorkuntzarako espazio gisa eskaintzen da.

Azken finean, egindako lanaren balorazioa positiboa da, zalantzarik gabe. Egiako Kultur Etxeak bere oinarriak sendotzea lortu du baina, hori baino garrantzitsuagoa dena, topagune eta sorkuntza-espazio bihurtzea lortu du.





JARDUERAK

	Kop.	Erabiltzaileak
Antzerkia	13	1.850
Dantza	3	2.140
Zinema	3	430
Bideoa	6	125
Musika	11	680
Hitzaldiak	18	850
Ikastaroak eta tailerrak	65	929
Erakusketak	15	7.750
Elkarteen bilerak eta jarduerak	90	1.870
Aretoen alokairua	1	15
Liburutegiko jarduerak	50	704
Hainbat ⁹	16	12.509
GUZTIRA	291	29.852

ZERBITZUAK

	Erabilerak
Liburutegiko bisitariak	34.942
E-donostia.net	4.657
Erabilera publikoko ordenagailuak	25
GUZTIRA	39.599

Urtean garatu diren zikloen eta jardueren artean, aipamen berezia merezi du Emakumearen Astearen hogeigarren urteurrenak. Kultur Etxeak berak ere hogeitau urte bete ditu ateak zabaldu zituenetik. Bestalde, azpimarratzekoak dira Loiolako Kultur Etxean antolatutako ondorengo ekimen hauek: Mikologiari buruzko Jardunaldiak, txotxongiloen erakusketa, Openaldia 07, eta abar.

Prestakuntzari dagokionez, ikastaro eta tailer gehiago antolatu dira. Zentzu horretan, lau hilabeteko iraupena duen eskaintza egin dela eta, ondorioz, jende ugari erakarri du egindako eskaintzak. Garapen pertsonalarekin eta autoezagutzarekin erlazionatutako ikastaro eta tailer gehiago eskaini dira (Risoterapia, Adimen emozionala, Gorputz-hizkuntza...), eta gehiago izan dira, halaber, gorputzarekin eta mugimendurekin erlazionatuta eskainitakoak (Tai-Chi, Yoga, sabel-dantza, eta abar).

Auzoko elkarteekin dagoen harreman estuari esker, Egiako auzoan hainbat ekimen aurrera ateratzea lortu da, hala nola Loiolan Topa edo Bizilagunen Festa bezalakoak, Atari Ederreko belena, Calcuta Ondoan GGKE, eta euskararekin eta etnografiarekin erlazionatutako jarduerak eta ekimen gehiago.

Liburutegiari dagokionez, erabiltzaile kopuruak etengabe egin du gora. Aipatzekoak dira, besteak beste, literatur tertuliei eman zaien ikuspegi zabalagoa edo Martuteneko Amundarain Mediateka irekitzeko egindako ahalegina; urte osoan lan asko egin da eta garapen handia lortu da.

Edonostia.net-ek sustatzen dituen teknologia berriei erreparatuta, urte osoan nabarmenki garatu dira prestakuntza eta nabigazioa, bai eta bestelako jarduerak gehiago ere.

Oraingoan ere udaleko hainbat arlo eta departamenturekin egindako lankidetzak emaitza bikainak eman ditu eta jarduerak eta zerbitzu bikainak eskaini direla esan behar da: Udalinfo, Agenda 21, Martuteneko Gaztelekua, Emakumea, Donostia Munduen Artean, eta abar.

⁹ San Isidro, mendi-irteera mikologikoa. Art Futura, Rol, estrategia eta si, mulazioko jolasen jardunaldiak, Atari Eder Belena, bertso bazkaria, Openaldia 07, eta abar.





JARDUERAK

	Kop.	Erabiltzaileak
Antzerkia	11	2.340
Zinema	3	536
Bideoa	2	53
Musika	6	1.088
Hitzaldiak	13	502
Ikastaroak eta tailerrak	48	538
Erakusketak	3	1.214
Elkarteen bilerak eta jarduerak	189	2.226
Aretoen alokairua	5	160
Liburutegiko jarduerak	35	585
Hainbat	7	156
GUZTIRA	322	9.398

ZERBITZUAK

		Erabilerak
Liburutegiko bisitariak		51.041
Plus 55	7	316
KZgunea		8.282
KZgunea (IT Txartela)	128	806
Erabilera publikoko ordenagailuak	42	
GUZTIRA		60.445

IRRATI TAILERRA

Sortutako irratsaioak	15
Egindako elkarrizketak	426
Irrati Tailerreko erabiltzaileak	135



Urtean garatu den programazioaren barruan, aipatzekoak dira Elkartasunaren Astean eta Mendi Astean barne hartutako jarduerak, edo Literaktum eta Donostia Munduen Artean ekimenen barruan garatutako jarduerak. Kultur Etxeaz gain, Altzako plazak, ikastetxeak, elizak eta tabernak erabili dira hainbat jarduera garatzeko, hala nola Poltsikoko Antzerkia, Zinema eta Antzerkia kalean, Bertso Astea eta Abesbatzak.

Berrikuntza moduan, Altxa Kantuz auzo-ekimenak aparteko aipamena merezi du. Euskal herri-abestiak ikastea eta gozatzea du helburutzat aipatu ekimenak.

Altzako auzoa biziberritzeko jardueren plan integralaren barruan hainbat erakusketa, hitzaldi, aurkezpen eta tailer antolatuta dira. Altzako Historia Mintegiarekin batera, bestalde, Altzako historiari buruzko bilduma lantzen jarraitu da eta, aurten, Altxa Hautsa Kenduz bildumako bederatzigarren liburukia argitaratu da. Bertan adierazitako edukiaren aberastasuna eta aniztasuna kontuan hartuta, garrantzi handiko proiektu bat dela azpimarratu nahi dugu.

Casares Irratiak garatu dituen produkzio propioko programei dagokienez, aipatzekoak dira LiburuDK kultur hedapenerako programa, Partaide herritarren partaidetza-programa eta Maketaldia-ren bitartez musika-taldeei ematen zaien laguntza.

Aipamen berezia merezi du, era berean, Antzerkia Airean ekimenaren bigarren edizioak lortu duen arrakasta handia. Ikastaroei erreparatuz, eskainitako ikastaro kopuruak gora egin du, bai eta parte hartu duen ikasle kopuruak ere. Urteko berrikuntzen artean, azpimarratzekoak dira Hasiberrientzako Sukaldaritza, Sekuentziadoreak eta Musika Elektronikoaren Produkzioa eta Zeinu Hizkuntza.

Liburutegiak eskaintzen duen zerbitzuak arazorik gabe erantzun dio erabiltzaile kopuruak ezagututako etengabeko hazkunderari. KZgunek eta Plus 55 programak zerbitzuak zabaldu dituzte erabiltzaile kopuruak izandako gorakadari erantzuteko.





JARDUERAK

	Kop. Erabiltzaileak	
Antzerkia	12	1.956
Dantza	4	830
Bideoa	1	155
Musika	9	1.082
Hitzaldiak	1	290
Ikastaroak eta tailerrak	5	77
Erakusketak	1	600
Elkarteen bilerak eta jarduerak	275	6.310
Liburutegiko jarduerak	31	406
GUZTIRA	339	11.706

ZERBITZUAK

	Erabilerak	
Liburutegiko bisitariak		17.047
Plus 55	12	1.089
Erabilera publikoko ordenagailuak	46	
GUZTIRA		18.136

Aurten ere haur-antzerkia izan dugu antzerki-programazioaren funtsa. Estilo desberdineko lanak eskaini dira, ipuin klasikoetatik fantasia garaikideetara, baita musikalen bat edo beste ere, edo txotxongiloak, magia-saiokak eta zirkoa. Helduentzako antzerkiari dagokionez, aurreko urteko ildoari eutsi zaio. Musika-eskaintzak gazteak ditu xede nagusitzat. Horrela, rock eta pop kontzertuak antolatatu dira eta ospe nazionaleko taldeek zein bertakoek parte hartu dute. Donostikluba zirkuituan egindako parte-hartzeaz gain, azpimarratzekoa da Heavy festa -Obus taldea izan zen izarra- eta Etengabeko Zarata hardcore-jaialdia -lau herrialde desberdinetako hamabi taldek parte hartu zuten-. Bi kasuetan, aurtengoa bosgarren edizioa izan da eta ikus-entzuleen eta kritikarien artean arrakasta handia lortu da.

Garrantzi handikoa da, halaber, Emakumearen Astea. Altzako emakumeen elkarteekin batera antolatzen da. Halaber, urte osoan mota orotako jarduerak garatzen dira elkarte horiekin batera.

Altzako elkarte-sare aberatsa eta Kultur Etxea osatzen duten espazio eta ekipamenduaren ezaugarriak kontuan hartuta, auzotarrak elkartzeko gune aproposa bihurtu da Egia Kultur Etxea. Horren adibide garbia dira Elkartasunaren Festa eta Miajadastarren Topagunea. Gainera, aretoa libre uzten da bilerak eta tailerrak antolatzeko edo danborradako edo inauterietako entseguak egiteko.

Aurten, Larratxoko liburutegian indartu egin da helduek maileguak egiteko zerbitzua, erabiltzaileek egindako erabilera handiari esker.



Ernest Lluch Kultur Etxea

(Amara)



JARDUERAK	Kop. Erabiltzaileak	
Antzerkia	21	3.282
Zinema	1	230
Bideoa	12	488
Musika	9	1.239
Hitzaldiak	12	367
Ikastaroak eta tailerrak	55	631
Erakusketak	12	3.363
Elkarteen bilerak eta jarduerak	451	10.765
Aretoen alokairua	17	372
Liburutegiko jarduerak	46	850
Hainbat ¹¹	14	863
GUZTIRA	650	22.450

ZERBITZUAK	Erabilera	
Liburutegiko bisitariak		151.621
Hautxoko		6.188
Gazteleku		7.078
Plus 55	47	1.584
Ikasgela	136	2.449
KZgunea		22.023
KZgunea (IT Txartela)	139	995
Erabilera publikoko ordenagailuak	46	
GUZTIRA		191.938



Ernest Lluch Kultur Etxea Amarako auzotarren eta elkarten erreferentziako espazio eta elkargune bihurtu da. Zerbitzu integratuak eskaintzeagatik apustua egin dugu (Liburutegia, KZgunea, Hautxokoa, Gazteleku, Plus 55 eta ikasketa-gelak), eta arte-diziplina desberdinetan ikastaroen eskaintza oso eta orekatu bat egiteko lan egiten dugu. Aurten antolatutako erakusketarik garrantzitsuenen artan aipa daitezke: "Te damos la chapa-Ziutateaz", "Artea Oinez", Impresión" eta 1000 irudi eta bat +".



Era berean, Literaktum-en hirugarren edizioan parte hartu dugu eta Erakusleihenaren eskutik, aurretik lortutako ospe ona berrestea lortu da, diziplina arteko proposamenak eta proposamen esperimentalak formatu txikian eskainiz. Hazi egin da, halaber, Narratzaileen Txokoa-El Txoko del Narrador. DK Literatura programari esker, eta Raúl Guerra Garrido, 2006ko Letra Espainolen Sariaren irabazlea, eta Rafael Chirbes idazleen bisita jaso dugu.

Aurretik egin dugun moduan, elkarteekin lan egiten jarraitu dugu. Horretarako, gure instalazioak elkarten eskura jarri ditugu euren bilerak eta jarduerak bertan garatzeko. Horrez guztiaz gain, auzoko leku gehiagotara iristen saiatu gara, Antzerkia edo Zinema kalean eta Poltsikoko Antzerkia ekimenekin. Azpimarratzekoa da hainbat erakundekin lortutako harremana: ARES, Espai Calatunya Topalekua, Amara-Osinagako Auzo Elkarte, Mundo Nuevo, Amara Kultura XXI., Ikasbide Elkarte, Karmeldarren eliza, Zorroaga, eta abar.



¹¹ Prentsaurrekoak, modelismo-maketen lehiaketa, bisita gidatuak eta entsegu puntualak.



JARDUERAK

	Kop.	Erabiltzaileak
Antzerkia	12	1.709
Zinema	3	1.050
Bideoa	19	1.065
Musika	10	1.294
Hitzaldiak	34	2.408
Ikastaroak eta tailerrak	55	792
Erakusketak	13	21.545
Elkarteen bilerak eta jarduerak	89	1.371
Alokairuak	11	941
Liburutegiko jarduerak	99	2.930
	9	195

GUZTIRA

354 35.300

ZERBITZUAK

		Erabilerak
Liburutegiko bisitariak		151.088
Haurtxoko		6.427
Gazteleku		8.579
Plus 55	72	2.932
KZgunea		24.574
KZgunea (IT Txartela)	139	995
Erabilera publikoko ordenagailuak	43	

GUZTIRA

194.595



Kultur Etxeak garatu duen jarduerari dagokionez, arte-diziplinen aniztasun handia azpimarratu behar da lehenik eta behin: pintura, argazkia, eskultura, komikia, instalazioa, guztiak eskaini dira. Gaikako erakusketak antolatzearekin batera, hala nola Cortázarren literaturari buruzkoa edo kirola eta ezintasunari buruzkoa (Más allá del Olimpo), artista ezagunen erakusketak antolatu dira, besteak beste: Hideshi Hino edo Dora Salazar artistei buruzkoak, eta bilduma-izaerako hainbat proposamen landu dira, hala nola "Yo Mujer / Ni emakume" edo "Panorama".

DK literatura programaren barruan, Paul Auster, Manuel Vicent, Amir Valle edo Juan Ramón Biedma bezalako idazle ezagunak izan ditugu gure artean. Euren lanari buruz eta kezka artistikoei buruz hitz egin dute jende ugariaren aurrean.

Artearekin eta letrekin erlazioz atutako ohiko ikastaroez gain, aurten ikastaro berriak eskaini dira, hala nola: Museoetara Ikustaldiak, Opera Ulertu edo Artelan bat nola irakurri.

Gure zerbitzuetan eskainitako programek eta jarduerak harrera bikaina lortu dute halaber. Plus 55 programak osasunari eta helduentzako arteari buruz eskaintzen dituen zikloak indartu ditu. Haurtxokora eta Gaztelekura gero eta haur eta gazte gehiago joaten dira eta KZguneak parte-hartze altua eta kalitatezko zerbitzuak dituela baieztatu da berriro.

Erabiltzaile ugari edukitzeaz gain, liburutegiak Ipuinaren Ordua eskaini du 3-5 urteko umeentzako eta, oraingoan, arrakasta handia lortu du ekimen horrek.





JARDUERAK	Kop. Erabiltzaileak	
Antzerkia	74	10.073
Zinema	76	12.208
Bideoa	8	163
Musika	15	2.041
Hitzaldiak	9	260
Ikastaroak eta tailerrak	48	579
Erakusketak	7	2.165
Elkarteen bilerak eta jarduerak	113	2.270
Elkarteen bilerak eta jarduerak (Merkatu zaharrean)	1.296	33.752
Aretoen alokairua	3	400
Liburutegiko jarduerak	30	963
Hainbat ^{1,2}	1	240
GUZTIRA	1.680	65.114

ZERBITZUAK	Erabilerak	
Liburutegiko bisitariak		40.761
Haurtxoko		2.564
Gazteleku		2.610
Plus 55		2.447
KZgunea		6.420
KZgunea (IT Txartela)	128	771
Erabilera publikoko ordenagailuak	28	
GUZTIRA		55.573

Imanol Larzabal espazioan programazio anitza eskaintzen da. Aipamen berezia merezi du haur-antzerkiari buruzko programazioak. Formatu txikiko eta ertaineko antzerkiak batez beste ikus-entzule kopuru altuak lortu ditu. Horrenbestez, lan labur bikainak edo berrikuntzak antolatuta eta eskaini dira, jakin bai baitakigu jendeak ondo erantzungo duela. Horren adibide garbia "Yo mono libre" lana izan da, Ricardo Joven aktoreak interpretatua.

Euskarazko kontzertuen programazioari dagokionez, duela lau urte hasi ginen ekimen honekin eta erabat finkatuta dagoela esan genezake. Kultur Etxeko eszenategitik hogeita hamar talde edo artista desberdin pasa dira jada.

Haur-zinemak gorakada ezagutu du lortutako ikusle kopuruaren hazkunderari erreparatuz.

Kaleko Antzerkiaren programak harrera bikaina lortu du aurten ere. Oraingoan "Sienta la cabeza" ikuskizuna azpimarratu behar da, ikuskizun benetan bitxia izan zelako.

Ibaetako Espiritu Santuaren elizarekin musika sakratuaren eta abesbatzen inguruan egindako lankidetzaren azpimarratzeko modukoa da.

Liburutegiaren eta irakurketaren sustapenari dagokienez, duela hiru urte martxan jarritako formularekin jarraitu dugu eta, ildo horretan, "Opera divertimento" ikuskizuna eskaini zaie eskolako umeei eta haurrei.

Amaizteko, Plus 55 zerbitzua eta Haurtxokoa eta Gaztelekuaz azpimarratu behar dira. Merkatu zaharrean daude eta programa eta jarduera berriak eskaini dituzte, guztiak harrera bikaina izan dutelarik.

12 Sari-banaketa.





JARDUERAK	Kop. Erabiltzaileak	
Antzerkia	22	1.864
Dantza	4	158
Zinema	2	280
Bideoa	20	590
Musika	5	410
Hitzaldiak	7	308
Ikastaroak eta tailerrak	53	683
Erakusketak	2	981
Elkarteen bilerak eta jarduerak	73	680
Liburutegiko jarduerak	40	1.236
Hainbat ¹³	19	1.015
GUZTIRA	247	8.205

ZERBITZUAK	Erabilerak	
Liburutegiko bisitariak		13.429
Edonostia.net		1123
Erabilera publikoko ordenagailuak	25	
GUZTIRA		14.552

BIDEO TAILERRA	Kop. Erabiltzaileak	
Gidoi-aholkularitza	91	82
Ekoizpenak	36	278



Ikus-entzunezkoen esparruko espezializazioa da kultur etxe honen ardatz nagusietako bat. Aurtengoan, azpimarratzekoa da nazioarteko hiru jaialditan parte hartu dela: gure lanen artekin hamar inguru aukeratu dituzte bertan parte hartzeko. Kamera Atzean programa, halaber, Kultur Etxeko erreferente gisa indartu da. Ikus-entzunezkoen esparruko prestakuntzari dagokionez, aurten ere Ikus Entzunezkoen Ekoizpena eta Aktoreen Zuzendaritza ikastaroak antolatu dira. Berriketari programak bere lana bete du eta zuzendari berrientzako eta ikus-entzunezkoen diziplinekin erlaziozkoen pertsonentzako topagunea izaten jarraitzen du, bertan esperientziak eta ezagupenak trukatzeko.

Edonostia.net zerbitzuari dagokionez, ikus-entzunezkoen edizioari buruzko ikastaroei esker, Kultur Etxeko espezializazioa eta teknologia berrien erabilera uztartzea lortu da. Liburutegiari dagokionez, astero ikastetxeekin bisitaldi gidatuak antolatu dira, haurrek liburutegien funtzionamendua ezagutzeko eta liburuaren mundura hurbiltzeko.

Herritarrek auzoko bizitzan parte hartzeko sustatu den prozesuan parte-hartze aktiboa egin du Kultur Etxeak. Helburu nagusia da auzoko beharren diagnostiko bateratu bat egitea. Era berean, auzoko elkarteekin hainbat jardueraren antolamendua egin da, hala nola Emakumearen astea eta Intxaurren Kantuz.

Bidebietako Hautxokoa ireki da eta Kontadores-eko Gazteleku ireki da berriro eta, horri esker, Bidebietan indartu egin da Bidebietako Gazteria udal-arloarekin izandako lankidetzak.

¹³ "Festatik Festara", Gabonak Zuretzat (tailerrak izan ezik).



Intxaurrondo Berri Kultur Etxea



JARDUERAK

	Kop. Erabiltzaileak	
Antzerkia	9	887
Zinema	2	270
Musika	3	210
Hitzaldiak	3	160
Ikastaroak eta tailerrak	15	345
Erakusketak	1	220
Aretoen alokairua	21	347
Liburutegiko jarduerak	26	247
GUZTIRA	80	2.686

ZERBITZUAK

	Erabilerak	
Liburutegiko bisitariak		51.364
Erabilera publikoko ordenagailuak	6	



Liburutegia, Kultur Etxeko zerbitzurik azpimarragarriena, auzoko erreferentea da. Azpimarratzekoa da emakumeen taldeekin egindako lankidetzak, emakumeen prestakuntza-jarduerak sustatzeko helburuarekin. Zentzu horretan, Afrikari buruzko elkargune bat sortu da. Irakurketa-gida bat eta erakusketa iraunkor bat prestatu dira horrekin lotuta.

Ikastaroei dagokienez, matrikulatutako ikasle kopuruak altua izaten jarraitzen du.

Haur-antzerkiaren programazioak eta kalean egindako jarduerak harrera bikaina lortu dute auzotarren artean. Lurraldean esku hartzen duten eragileen lan-taldeak indartzea lortu da eta, horri esker, jardueren koordinazioa hobetu da eta kultur eskaintza eta aisialdiko eskaintza auzoko talde eta sektore desberdinetara hobeto egokitzea lortu da. Funtzionamendu horri esker, Kultur Etxeak auzoko gizarte-bizitzarekin bat egitea lortu du.

Intxaurrondon kirol eta kultur ekipamendu berria jartzean (hemendik gutxira hasiko dira lanak), herritarren gaur egungo eta etorkizuneko beharrei erantzuteko bitarteko egokiak edukiko ditugulakoan gaude.





	OBRAK	FUNTZIOAK	IKUSLEAK
ANTZERKIA			
Antzerki Feria	41	74	40.750
GUZTIZKOAK	41	74	40.750
Neguko denboraldia			
Antzerki Profesionala	41	84	27.045
Amateur Antzerkia	16	16	1.763
Haur Antzerkia	58	58	8.667
Kaleko Antzerkia	29	30	10.495
Beldurrezko Antzerkia Kalean	2	3	8.500
Beldurrezko Antzerkia	1	1	546
Poltsikoko Antzerkia	19	19	1.286
Eskoletako Antzerki Emanaldiak	0	0	0
Hainbat	16	17	2.907
GUZTIZKOAK	182	228	61.209
Udako denboraldia			
Antzerki profesionala	11	84	24.821
GUZTIZKOAK	11	84	24.821
LIRIKA	7	12	6.170
DANTZA	47	57	19.555
MUSIKALA	3	29	19.985
GUZTIZKOAK GUZTIZKOAK 291		484	172.490



Victoria Eugenia Antzokiaren irekiera oso eraginkorra izan da Donostiako arte eszenikoen panorama indartzeko. Donostiarraren erantzuna bikaina izan da: diziplina desberdinetan antolatutako saio ugariak jende asko hurbildu da. Gainerako ekipamendu donostiarrak egoera berrira egokitu dira, eta bakoitzak bere ezaugarri teknikoaren eta programazio-irizpideen arabera eskaintza egiten jarraitu du. Ikusleek Antzokia berriro ere ezagutu ahal izan dute eta 2007an izandako une artistiko handiez eta ugarietz gozatzeko aukera eduki dute. Antzerki-proposamen konbentzionalen eta garaikideen artean oreka mantentzea lortu da; bai eta haur-antzerkiaren eta gazte-antzerkiaren artean ere; edo euskal antzerkiaren eta kanpoko antzerkiaren artean. Gure programazioan euskararen agerpena zaindu dugu eta, xede horrekin, Euskararen Udal Patronatuaren lankidetzari baliatu da. Era berean, gure eszenategietan dantza garaikidea erakusten jarraitu dugu. Baina, guzti horren gainetik, aipamen berezia merezi du, gure ustez, antzerki- eta dantza-muntaia handiak berriro ere etorri direla Donostiara. Urteetan gurera etorri gabe egon ondoren, eszenategi espainoleko eta nazioarteko izen garrantzitsuak hurbildu dira gurera. Beldur gabe esan daiteke, zaletasunak berdin jarraitzen duela, Antzoki handiko ikusleak bertan direla eta ilusioz beteriko bide berri baten aurrean gaudela. Ilusio horietako zenbait errealitate bihurtu dira jada gaur egun. Adibide ugari aipa daitezke: antzerkian Concha Velasco, Juan Echanove, Ana Belén, Belén Rueda, José María Pou, Alberto San Juan edo Tricicle taldea bezalakoak izan ditugu gurean edo "Cuento de Invierno", "Cyrano", "Fedra", "Paradero desconocido", "Antígona" edo "Cueva de ladrones" bezalako ikuskizunetz gozatu dugu. Hainbat konpainia ere bertaratutakoak dira, hala nola Els Joglars, La Zaranda, Pippo Delbono edo Zentro Dramatikoa Nazionala,

Animalario-rekin. Egile ospetsuen azterketa bat ere egin zen: Shakespeare, Rostand, Alfonso Sastre... Lirikari dagokionez, La Zarzuela Antzokiak "La taberna del puerto" ekarri zuen. Bestalde, "Cabaret" eta "Fama" musikalek harrera bikaina lortu zuten.

Dantza-programazioa ere oso garrantzitsua izan da. Lyongo Opera, Montalvo-Hervieu, Víctor Ullate, Momix, Eva Yerbabuena, Carolyn Carlson eta joera koreografiko desberdinetako koreografo eta konpainia garrantzitsuak hurbildu dira gurera, klasikotik garaikidera, neoklasikoa eta flamenkoa barne hartuta. Azpimarratzekoak dira, halaber, Biarritz-eko Baletak eta Lucía Lacarra dantzariak aurkeztutako ikuskizunak.

Antzerki eta Dantza Unitatearen oinarriak ez dira aldatu, indartu baizik. Ezin dira aipatu gabe utzi haurrentzako antolatzen diren lau programazio egonkorak. Antzoki Zaharrean eta Imanol Larzabal, Gazteszena eta Altzako aretoetan izaten dira. Lugaritz Kultur Etxeko Imanol Larzabal Aretoak formatu txikia eta haur-antzerkia lantzen ditu batik bat, eta bietan ikusle kopuru azpimarragarriak lortzen ditu. Egiako Kultur Etxeko Gateszena Aretoari dagokionez, azpimarratzekoak dira bertan antolatzen diren dantza- eta antzerki-programazioak. Euskadiko abangoardistenen artean daudela esan beharra dago.

Horrenbestez, Arte Eszenikoek denboraldi bikaina ezagutu dute hirian aurrean eta Donostia Kulturak hori lortzeko lan handia egin du. Eta, nola ez, gure ikusleei eskerrak eman nahi dizkiegu emandako erantzunagatik.

Victoria Eugenia Antzokia



Modalitatea	Ikuskizunak	Funtzioak	Ikusleak	Ikusleak aretoko	Batez best. betetzea
Victoria Eugenia Antzokia					
ZINEMA	64	75	27.131	121.033	64,22%
DANTZA	16	26	15.756		77,97%
LIRIKA	2	6	3.757		85,31%
MUSIKA	44	45	27.811		76,31%
MUSIKALA	2	27	18.897		91,96%
ANTZERKIA	18	43	24.857		76,02%
HAUR ANTZERKIA	6	7	2.824		53,22%
Guztira					74,44%
Klub aretoa					
MUSIKA	21	27	2.654	3.781	75,35%
ANTZERKIA	6	6	683		94,21%
HAUR ANTZERKIA	1	1	180		100,00%
POESIA ORDUAK	1	2	264		100,00%
Guztira					80,60%
GUZTIRA		181	265	124.814	74,61%

2007ko martxoaren 1ean berriro inauguratu zen Victoria Eugenia antzokia, birmoldaketa sakon bat egin eta gero. Birmoldaketa-lan handia egin da antzoki zaharrak ekipamendu modernoa eta dinamikoa eskaintzeko eta XXI. mendeko artisten eta ikus-entzuleen beharrei erantzuteko egokiak diren baldintzak ziurtatzeko. Inaugurazio-ekitaldi bikaina eta zirraragarria antolatatu zen, eta lortutako kalitatea, etorritako artistak, arteen arteko nahasketak eta komunikabideetan izandako isla horren erakusleak dira. Baina, guztiaren gainetik garrantzitsuenak, jendearen erantzuna izan zen. Lan handia egin da antolatutako programazio handizalea garatzeko, donostiarrei ikuskizun berritzaileak eskaintzeko eta kalitatezko ikuskizunak, nazioartekoak, formatu handikoak eskaintzeko... izan ere, ikus-entzule berriak eta gazteak erakarri nahi dira. Erronka: urteko egun guztietan, ordutegi zabalean, eszena-dinamika egokiak indartzea eta sortzea Victoria Eugenia Antzokia bezalako sormen-espazio garrantzitsu batean.

Dantza-programazioari dagokionez, nazioarteko eskaintza egin da. Mundu-mailako ikuskizunik bikainenak ekarri dira Victoria Eugenia Antzokiko eszenategira. Hasitako lerro programatikoa berria oso garrantzitsua da eta, berari esker, nazioartean ezagunak diren euskal dantzari bikainak euren balet propioekin ikusi ahal izango ditugu. Lucia Lacarra izan da lehena eta 2008an euskal dantzari garrantzitsu gehiago ekarriko dira. Biarritz-eko Baletarekin egindako lankidetzari hasi da fruituak ematen. Abiapuntua oso ona da. Etorkizunera begira, bide luzea egin beharko dugula jakin badakigu, eta pixkanaka emaitzak ikusten hasiko garela ziur gaude. Gurean izan ditugu, besteak beste, honako konpainia hauek: Momix, Lyongo Operako Baleta, Montalvo-Hervieu, Eva Yerbabuena, Víctor Ullate, Carolyn Carlson, eta abar. Eta oraindik ikusteko duguna...

Antzerki-programazioa ez da, logikoa den moduan, dantzakoa bezain nazioartekoa, baina proposamen konbentzionalen eta berritzaileen artean oreka bilatzen saiatzen da; proposamen



Teatro Victoria Eugenia



klasikoak bilatzen ditu ikuspegi garaikideak eta gaur egungoak erabilia; eta, azken finean, Victoria Eugenia Antzokiko eszenategia eskaintzen da herrialdeko artista garrantzitsuenak Donostiara erakartzeko. Horrela, bada, gurean izan ditugu ondorengo ikuskizunak: "Fedra", Ana Belén-ekin, "Un cuento de invierno" Shakespeare-ena, "Closer" Belén Rueda-rekin, edo José María Pou-ren "La cabra o ¿quién es Silvyá?" ikuskizun saritua. Eromena CDN-Animalario eta bere "Marat-Sade" ikuskizunarekin iritsi zen, edo Pippo Delbono eta bere "Urlo" (Ulua) lanaren eskutik. Aipatutakoez gain, Tricycle, Els Joglars, eta Juan Echanove Donostiara etorri ziren berriro eta harrera bikaina egin zitzaizen eta arrakasta handia lortu zuten ikusleen artean.

Lirikari dagokionez, La Zarzuela Antzokiarekin dugun lankidetzari esker, denboraldiko funtzio bana antolatzen da. Funtzio bakarra bada ere, eskaintzen den kalitatea goi-mailakoa da. Gaur egun modan dauden musikalak Donostiara etorri dira. 2007an "Cabaret" eta "Fama" musikal sarituek eta arrakastatsuek 25 funtziona egin zituzten Victoria Eugenia Antzokian eta betetze-maila izugarriak lortu zituzten gainera.

Ezin da gehiago esan. Kopuruak hor daude. Donostiarrak irrikitan zeuden Antzokia berriro martxan ikusteko eta gogo ona eta ilusio handia erakutsi dute etapa berri honen hasieran. Emaitza onak lortu direla esan dezakegu. Baina erronkak ez dira desagertu. Lanean jarraitu behar dugu eta Victoria Eugenia Antzokia Gipuzkoan lehen mailako eszenatoki izatea lortu behar dugu. Inguruko ideia eta proiektu artistikoak dinamizatuko dituen eragile nagusia izan behar du eta "Victoria Eugenia" marka sortu behar da, nazioartean ezagutzera emateko eta dagokion lekua hartzeko.



Antzoki Zaharra



	Obrak	Funtzioak	Ikusleak
Antzerki Feria	6	6	1.708
GUZTIZKOAK	6	6	1.708

Neguko denboraldia:

Antzerkia	20	49	12.404
Dantza	1	1	339
Beldurrezko Antzerkia Kalean	2	3	8.500
Beldurrezko Antzerkia	1	1	546
Beldurrezko Musika	1	1	75
Dantza Giza Eskubideen Aretoan	1	1	574
Giza Eskubideen Musika	1	1	180
Gazteen Antzerki Emanaldiak	14	14	1.842
Nosferatu	32	32	4.523
Fantasiako eta Beldurrezko Zinemaren Astea	69	45	17.344
Giza Eskubideen Zinemaldia	29	16	6.505
Surfilm Festibala	30	9	1.840
Animatoo	21	5	458
Ziklo eta Saio Bereziak	14	15	2.562
Tinko (zinema-emanaldiak eskoletarako)	33	33	8.859
GUZTIZKOAK	269	226	66.551

Udako denboraldia:

Antzerkia	9	68	15.266
Lirika	2	4	1.643
GUZTIZKOAK	11	72	16.909
GUZTIZKOAK GUZTIZKOAK	280	298	83.460

Alokairuak	17		
Lankidetzak	4		
Lirika	3		
EGUNAK GUZTIRA	24		



Kale Nagusian dagoen antzoki honetan, Donostiako arte eszenikoen errealitate berrira egokitzeko prozesu bati ekin zaio. Errealitate berri horretan, eszenategi bakoitzak funtzio jakin bat betetzen du hiriko eta inguruko Arte Eszenikoen esparruan.

Udako Antzerki Denboraldian ikusle kopurua garrantzitsua izan da eta Donostia izan da erlaitz kantabriko osoan antzerki-erreferente nagusia. Aurreko denboraldietan eskainitako kalitateari eutsi dio aurtengo programazioak eta, aurreko urteetan bezala, Espainiako antzerkiko pertsonaia garrantzitsuak ekarri dira Donostiara. Sarrerren prezioak ere nahiko erakargarriak izan direla esan behar dugu. 2006an errekor berri bat ezarri ondoren, 2007an, uda osoan, 16.909 ikusle izan dira gurean. Horrela, Donostia udako lekuri garrantzitsuenetako bat da Estatuan. Neguko denboraldian, berriz, 12.404 lagun hurbildu dira gure eszenategietara udazkenetik-negura, eta batez beste-ko ikusle kopurua hobetzea lortu da.

Helduentzako euskarazko antzerki-proposamenen programazioa indartu egin da eta aurreko urtean eszenategi donostiarretan izandako helduentzako euskarazko ikuskizunik bikainena garaipatzeko ematen den "Donostia Sariak" bere garrantzia aitortzea lortu du. Eta guztia Euskararen Udal Patronatuaren eta

Donostia Kulturaren artean egindako lankidetzaren senduari esker lortu da. Edizio honetan, Txalo Produzioak etxearen "Artea" ikuskizun garaikideak irabazi du saria.

Zinema-programazioari dagokionez, Fantasiako eta Beldurrezko Zinemaren XVII. Asteak lortu duen arrakasta handia azpimarratu behar da. Urteik urtera gero eta gehiago dira erakartzen dituen ikusleak eta zaleak. Era berean, Surfilm Festibal eta Giza Eskubideen Zinemaldia sendotu dira eta bi udal-antzoki handienetan eskaini dituzte funtzioak.

Horrenbestez, urte osoan Antzoki Zaharrean 298 jarduera antolatuta dira eta betetze-maila oso onargarriak lortu ditu (83.460 lagun). Victoria Eugeniari esker, Antzoki Zaharrak nortasun propioa programazioa landu eta garatu ahal izango du eta bere lerro programatikoa propioa jarraituko du. Horiek dira espazio honek datozen urteetan aurrean izango dituen erronka nagusiak.

Donostiako Antzerki Feria



	Obrak	Funtzioak	Ikusleak
ARETOKO IKUSKIZUNAK			
Victoria Eugenia Antzokia	4	5	2.243
Klub Aretoa	2	2	240
Antzoki Zaharra	6	6	1.708
Ganbera Aretoa	2	2	525
Kursaal Auditorioa	1	1	933
Gazteszena Aretoa	5	5	943
Imanol Larzabal Aretoa	5	5	750
GUZTIZKOAK	25	26	7.342

KALEKO IKUSKIZUNAK			
Sagues	1	2	1.300
Parte Zaharra	7	35	21.000
Gipuzkoa plaza	2	2	1.400
Bulebarra	1	4	3.400
Okendo plaza	2	2	1.100
Alderdi Eder	2	2	1.200
Konstituzio plaza	1	1	750
GUZTIZKOAK	16	48	30.150

JARDUERA PARALELOAK			
Carolyn Carlson-en klase magistrala			17
Antzerkia Airean			78
"El escenario de la ilusión" erakusketa			2.543
Malabarren tailerra			70
Bilera: SAREA			40
Bilera: ESKENA			30
Bilera: Esquina Norte			7
Bilera: Sarearen Zuzendaritza			10
Bilera: Sareko Antzerki eta Dantza Batzordea			10
GUZTIZKOAK			2.805

SEKTOREKO LAGUNTZAILEAK			
Programatzaileak			118
Banatzzaileak			51
Profesionalak			26
Konpainiak			204
Kazetariak			80
GUZTIZKOAK			479

GUZTIZKOAK	41	74	40.776
-------------------	-----------	-----------	---------------



Donostiako Antzerki Feria



Donostiako Antzerki Feriak Estatuko antzerki-ekimen garrantzitsuenetako bat izatea lortu du, eta, aldi berean, gero eta ospe handiagoa hartzen ari da nazioartean. Victoria Eugenia Antzokia birgaitu eta berriro ireki eta gero, Feriak espazio berri eta oso garrantzitsu bat berreskuratu du. Formatu handia, kalitateko nazioarteko programazioa eta proposamen ez-komertzialak funtsezkoak izan dira espazio honen erabileran. Aurreko edizioan Kaleko antzerkia indartzeko antolatzaileek egin zuten apustuari heldu diogu eta Kaleko antzerkia hiriko kale eta espazio publikoetara zabaltzeko lan egin da; egunero erabiltzen diren espazioak sormenarekin eta aisialdiarekin erlazionatu nahi ditugu eta Feria benetako "festa" bihurtu nahi dugu eta herritarren eta, oro har, jendearen parte-hartzea areagotu. Horrela lortuko da aurrera egitea.

Atzera begira, Feriara profesionalak gonbidatzeko baldintzak aldatu behar zirela ikus zen, baina arrisku handia hartu behar zen. Joan den ediziotik, profesional akreditatuak ez dira gastu guztiak ordainduta dituztela gonbidatzen. Orain, erraztu egiten zaie euren beharren eta ikuskizun bakoitzerako sarreren eta dokumentazioaren kudeaketa. Joan den urtean behera egin zuen profesional akreditatuen kopuruak, baina aurten joera hori etetea lortu da. Eteteaz gain, kopuruak hobetu dira eta 2005eko mailara iritsi dira. Adierazitako guztiaz gain, gurean egondako banatzaileen kopuruak izugarritzko hazkundea ezagutu du.

Kaleko Arteen aldeko apustua egin zen 2006an eta aurten ere apustu horri heldu diogu. Gainera, "Taupadas/Latidos" lanaren koprodukzioa egin da eta Valladolid-eko Jaialdian parte hartu da. Donostiako Antzerki Feriaren barruan antolatzen da hiriko kaleetan egiten den ekitaldirik garrantzitsuena. Berehalakoa da ikusleen erreakzioa ikuskizuna kalean bertatik bertara ikustean. Donostia Arte Eszenikoen festa izan da kaleko proposamenek iraun duten lau egunetan eta nortasun propioa duen jaialdi bat eskaintzea lortu da.

Jarduera Paraleloak izan dira 2007ko Antzerki Feriatik azpimarratu beharreko beste ezaugarri bat. Victoria Eugenia Antzokia berak sortutako sinergiak baliatu dira FERIA aberasten duten jarduerak zentralizatzeko eta ospe handiagoa lortzeko. Txiki eta helduentzako jarduerak, profesionalentzako jarduerak eta, oro har, jende guztiarentzako jarduerak eskaini dira eta ideiak trukatzeko foro bat eta foro komertzial bat osatu da.

Oraindik gaueko Topagune bat eskaintzea falta da. Egunekoak ere izan daitezke. Profesionalentzako topagunea izango da eta

nazioarteko profesionalak erakartzea eta FERIA Donostiako udan antolatzen den ekitaldi "handietako" bat bihurtzea bilatu behar da.

Feriak 2007an lortu dituen zenbait datu irakur daitezke ondoren:

Ikusle parte-hartzaileak: 40.000 lagun baino gehiago. Aretoan eta jarduera paraleloetan 10.147 ikusle izan dira. Aire zabaleko espazioetan 30.000 lagun inguruk parte hartu dute Ferian.

41 ikuskizun, 74 funtzio, programatu dira.

Horietatik lau estreinaldi absolutuak izan dira: "Rest", "Las Inalámbricas", "Elagujerodelavestruz", "Restaurant tú three". Beste sei Estatuan estreinaldiak izan dira: "A todo pecho", "Aguazul", "Kukai Logela", "María Peligro", "Rouge Elea", "Bilbobasso". Feriako estreinaldien portzentajea programazio osoaren % 26ra iristen da.

Konpainien jatorriari dagokionez, honako hau da banaketa:

Euskal ordezkaririk: % 42
Estatuko ordezkaririk: % 25
Nazioarteko ordezkaririk: % 33

Ikuskizunek diziplinen arabera izan duten banaketari dagokionez:

Antzerkia: % 30
Zirkua: % 30
Dantza: % 25
Hainbat: % 10 (instalazioak, magia, musika, zinema)
Txotxongiloak: % 5

Ikuskizunek aretoan izan edo kalean izan lortu duten banaketa ondoren ikus daitezke:

Aretoko proposamenak: % 61
Kaleko proposamenak: % 39

Profesional akreditatuak:

118 programatzaile
51 banatzaile
50 produktore
80 komunikabide
204 konpainiako kide
204 miembros de compañías





IKUSKIZUNAK	Kop.	Erabiltzaileak
Victoria Eugenia Antzokia	31	10.594
Gazteszena	8	2.099
Kursaal (Kursaal Fundazioa)	15	12.908
Kursaal (Gabonetako Gospel Kontzertuak)	5	6.050
GUZTIRA	59	31.650

Azken urteetan Jazzaldiaren bulegoaren ardurapean eskaini diren ohiko programazioez gain, aipatu bulegoak Victoria Eugenia Antzokiko musika-programazioa lantzen laguntzen du, Donostia Kulturean sartu denetik. Horrez gain, DK-k sortutako musika-jarduera orokorren programazioaz arduratzen hasi da.

Horrenbestez, 2007an ondoren adierazitako jarduerak garatu ditu, Jazzaldia antolatzeaz gain (aurrerago aipatu da):

Victoria Eugenia Antzokiko musika-programazioa: Inaugurazio Denboraldiaren barruan –martxotik ekainera, biak barne- eta, beranduago, urrian, azaroan eta abenduan. Gurera etorritako artista ezagunen artean aipatzekoak dira: Patti Smith, Paul Weller, Carlinhos Brown, Wim Mertens, Benito Lertxundi eta Ruper Ordorika.

Kursaal Fundazioaren Bestelako Musikak atalaren programazioa Auditorioan eta Ganbera Aretoan eskaintzen da eta oraingoan Miguel Bosé, Laurie Anderson, Caetano Veloso eta Rufus Wainwright izan dira gurean, besteak beste.

Gazteszenako udaberriko eta udazkeneko programazioetan De La Soul, Devendra Banhart eta Bandabardó talde italiarraz gozatzeko aukera izan genuen, besteak beste.

Gabonetako IX. Gospel Kontzertuen eskutik 5 emanaldi egin ziren. Dagoeneko Donostiako Gabonetan jarduera tradizionala bihurtu da.

Hainbat jarduera: departamentu honek aurten Donostian antolatu den ikuskizunik garrantzitsuenen artean parte hartu du promotoreekin hitz eginez. Bi ikuskizun horiek dira: The Rolling Stones taldeak Anoeta Estadioan emandako kontzertua eta azaroan Antonio Elorza Belodromoan eskainitako Circo del Sol-en ikuskizuna. Bietan parte-hartze eta lan handia egin zen ikuskizunen produzioan.





2007ko uztailearen 23tik 29ra Donostian 42. Heineken Jazzaldia egin zen. Egindako balantzea bikaina da ikuspegi artistikotik zein jendeak emandako erantzunaren aldetik; gainera, oihartzun handia lortu da komunikabideetan. Ia 135.000 ikusle hurbildu ziren programaturako 68 kontzertuetara. Kopuru horrek hazkunde nabarmena dakar aurreko urteko kopuruarekin alderatuta (113.000 ikusle aurreko Jazzaldian).

Zazpi egun iraun ditu oraingoan Jazzaldiak, sei izan beharrean, aurten Haizearen Orrazian kontzertu berezi bat antolatu zelako. Izan ere, Eduardo Chillidak Haizearen Orrazia bere lan esanguratsua, Donostiako identitate-zeinu bihurtu dena, egin zuenetik 30 urte igaro direla ospatzeko kontzertu berezi bat antolatu zen. Ohikoa den moduan, Heineken Jazzaldiak hiriki eskaintzen dituen paraje naturalak eta arkitektonikoak erabili ditu (Trinitate plaza, Zurriola hondartza, Kursaleko terrazak eta Auditorioa) eta, aurten, gainera, aspalditik ezagutzen duen lagun batekin topo egin du berriro: Victoria Eugenia Antzokiarekin, hain zuzen ere. Zazpi urtez itxita egon eta gero (birgaitze-lanak egin dira), bera dugu, berriro ere, gure hiriko arte eszenikoen eta musikaren eragile nagusia.

Jende gehien bildu zuten kontzertuak Zurriola hondartzako Eszenategi Berdean dohainik antolatutakoak izan ziren, jakina. Besteak beste, ondorengo taldeek jo zuten bertan: Gotan Project, The Skatalites, Living Colour, Horace Andy, Cassius eta CirKus Neneh Cherry-rekin; eta ordaindu behar zen esparri itxietan ere (Trinitate plaza, Kursaleko Auditorioa eta Victoria Eugenia Antzokia), gora egin du sarreren salmentak, hain zuzen ere iaz baino % 15 sarrera gehiago saldu da. Argi dago Heineken Jazzaldiak arrakasta handia duela Donostiako herritarren eta ingurukoaren artean eta asko dira, gainera, Espainia, Frantzia, Italia, Britainia eta munduko hainbat herrialdeetatik erakartzeko bisitariak.

Ikuspegi artistikotik, jendeak eta kritikariek gehien atsegini izan dituzten kontzertuak ondoren adierazitakoak dira: Wayne Shorter (Donostiako Jazzaldia 2007 Saria jaso zuen, bere karreragatik), Pat Metheny eta Brad Mehldau, Elvis Costello eta Allen Toussaint, Marcus Miller, Chick Corea eta Gary Burton, Van der Graaf Generator, Bryan Ferry, Living Colour, Madeleine Peyroux eta Pedro Iturralde.

Garbi dago Heineken Jazzaldiak bertako taldeen alde egin duela apustu, izan ere, ezagutzera emateko eta euren musika erakusteko aukera ematen zaie urtero bertako taldeei. Jazzaldian hamabi euskal taldek edo interprete euskaldunak dituzten taldek parte hartu dute aurten. Jazzaldian parte hartu aurretik, urtarrietik maiatzera, hautapen-prozesu bat egin zen, hiriko hainbat klubetan eskainitako kontzertuen bitartez.

42. Heineken Jazzaldiak oihartzun handia izan du komunikabideetan. 71 komunikabidek eta 154 kazetarik jaso zuten akreditazioa. Telebista-kate guztietan hitz egin zen Jazzaldiari buruz eta horietatik hiruk (TVE, Tele 5 eta ETB) zuzeneko konexioa egin zuten uztailearen 29an Trinitate plazarekin, Elvis Costelloren emanaldia erakusteko. Bestalde, Estatuko telebista publikoko La 2 kateak Jazzaldiko kontzerturik garrantzitsuenak eskaini zituen abuztuaren 13tik 24ra bitartean: guztira 10 emanaldi, 90 minutukoa bakoitza.

Egunkariei dagokienez, informazio orokorreko egunkari nagusiak egon ziren Jazzaldian (El País, El Mundo, El Diario



Vasco, El Correo, El Periódico de Cataluña, La Razón, ABC, Gara, Berria, Noticias de Gipuzkoa, Deia) eta aldizkari espezializatuetan ere estaldura zabaldua eman zituzten Jazzaldiari (Cuadernos de Jazz, Soul Nation, Ruta 66, World Music, Enlace Funk, Rockdeluxe, Mondo Sonoro). Gainera, Jazzaldiari buruzko berri ugari banatu zituzten agentzia garrantzitsuenek (Efe, Europa Press, Reuters, France Presse). Irrati-kateetan (SER, Onda Cero, Radio Nacional, Radio Euskadi, Punto Radio) Jazzaldiari buruzko informazioa eman zuten hasi aurretik eta Jazzaldiak iraun zuten bitartean. Zentzu horretan, Jazzaldiko zuzendaria elkarriketatu zuten. Jazzaldiari buruz jardun zuten frantsesez Radio France Bleu-Pays Basque irratian. Ez zen kazetari atzerritar gehiegi etorri, dozena bat inguru, baina komunikabide oso garrantzitsuetako ordezkariak ziren guztiak, hala nola Down Beat aldizkaria, Amerikako Estatu Batuetan jazzari buruz dagoen aldizkari garrantzitsuenak, eta Jazz Hot eta Jazz Magazine aldizkarietako ordezkariak, Frantziako garrantzitsuenak. Guztietan Heineken Jazzaldiari eta Donostiari buruzko erreportaje bikainak eta zabalak eskaini ziren iraileko zenbakian. Gainera, ordezkari bereziak bidali zituzten Le Monde egunkariak, Frantziako ezagunenak, Sud-Ouest egunkariak, Akitanian zirkulazio handiena duenak, eta El Comercio egunkariak, Perun gehien irakurtzen denak.

Jazzaldiak Interneten duen agerpena gero eta nabarmenagoa da. Bilatzaile nagusietan (Google, Yahoo) eta Web 2.0 (YouTube) orrian gehien egin diren bilaketaren artean kokatu da.

Zinema Unitateko argitalpenak



Aurten, Nosferatu aldizkariak hiru ale atera ditu: 54. alea, zinema iparramerikarra eta indarkeriari buruzkoa ("La generación de la violencia del cine norteamericano"); eta 55. eta 56. aleak, zinema korear berriari buruzkoak ("Nuevo Cine Coreano").

Fantasiako eta Beldurrezko Zinemaren Asteari dagokionez, pelikulen katalogoaz gain, "American Gothic: El cine de terror USA 1968-1980" liburua argitaratu da, Antonio José Navaroren koordinaziopean; Jack Mircala-ren "Verlian eta galdutako talismana" haur-ipuina, marrazkiduna, landu da euskaraz eta gaztelaniaz ; eta "2000 Maníacos" eta "Interzona" fanzineak argitaratu dira.

Giza Eskubideen Zinemaldiari dagokionez, filmen eta jardueren katalogoa argitaratu da.



Zinema eta Bideoa



ZINEMAKO PROGRAMAZIOAREN LABURPEN OROKORRA ANTZOKI ZAHARRA ETA VICTORIA EUGENIA ANTZOKIA

	Egunak	Filmak	Saioak	Ikuskizunak
Nosferatu programazioa	32	32	32	4.523
Beldurrezko Zinemaren Astea	8	69	45	17.344
Giza Eskubideen Zinemaldia	8	29	16	6.505
Surfilm festibala	4	30	9	1.840
Animatoon	3	21	5	458
Ziklo eta saio bereziak	133	236	185	25.302
GUZTIZKOAK	188	417	292	55.972

ZINEMARI ETA BIDEOARI LOTURIKO JARDUERAK

Programatutako filmen eskutik, hainbat eta hainbat zinemagile, kritikari, historialari zinematografiko eta arte-munduko pertsonaren bisita jaso dugu. Besteren artean, honakoak dira azpimarratzekoak: Javier eta Pilar Bardem, Mariano Barroso, Javier Corcuera, Florenci Rey, Im Sang-soo, Ione Hernández, Tim Sullivan, Nacho Vigalondo, Karra Elejalde, Paco Plaza, Jaime Balagueró, Glenn Standring, Xavier Gens, Ideshi Hino, Victoria Francés, Anders Ronnow Klarlund edo Santiago Segura.



Azken urteetan bezalaxe, azpimarratzekoa da Donostiako auzoetan kanpo-proiektzioak eskaintzen direla eta Fantasiako eta Beldurrezko Zinemaren Astea gero eta arrakasta handiagoa lortzen ari dela, bai publikoari dagokionez eta bai kritikari dagokionez ere. Bestalde, Larrotxene Kultur Etxeko espezializazio bideografikorako proiektua finkatu egin da (bere tailer eta koprodukzio bideografikoekin, "Berriketari" programarekin –zinemagile gazteen eta ikusle donostiarren arteko topaketa-, zinema dokumentalari eskainitako ikastaroekin, "Kameraren atzetik" programarekin -haur eta gazteei zuzendua- eta abar).

Gazteria, Hezkuntza eta Lankidetzaren Zuzendaritzarekin batera produzitu zen Giza Eskubideen Zinemaldia eta Victoria Eugenia Antzokian izan zen amaiera-ekitaldia, arrakasta handia lortuz.

Bestalde, Surfilm Jaialdiaren laugarren edizioa Antzoki Zaharrean antolatuta da berriz ere, eta emaitza bikainak lortu ditu.



Fantasiatzko eta Beldurrezko Zinemaren XVII. Astea

Urriaren 27tik azaroaren 3ra Aste honen hemezortzigarren edizioa ospatu da. Oraingo honetan azpimarratzekoa da Victoria Eugenia Antzokia berriro ere sartu dela programazioan.

69 film eman dira, eta 50.012 ikuslek gozatu ahal izan du Aste honetako jardueraren bat, dela emanaldi zinematografikoren bat, edota dela jarduera paralelaren bat (kaleko antzerkia, erakusketak, fanzineak, kontzertuak, zinema- eta komiki-topaketak eta abar).

9 film luze programatu dira euskaraz (7 helduentzat eta 2 haurrentzat –azken hauek Kursaleko kubo handian, Kutxaren bobesari esker-) eta 15 film labur. Guztira, 2.730 ikusle izan dira.

Filmen katalogoaz gain, "American Gothic: El cine de terror USA 1968-1980" liburua egin da, Antonio José Navarrok koordinaziopean, eta Jack Mircala-ren "Verlian eta galdutako talismanan" haur-ipuina, marrazkiduna, landu da euskaraz eta gaztelaniaz, eta "2000 Maniacos" eta "Interzona" fanzineak argitaratu dira.

200 gonbidatuk baino gehiagok bisitatu dute gure hiria Aste honetan zehar. Fantasiatzko eta beldurrezko zinemaren munduko argitalpenik garrantzitsuenetako batzuen ordezkariak bertaratu direla ere nabarmendu behar da. Argitalpen horiek Mad Movies (Frantzia), L'Ecran Fantastique (Frantzia), Nocturno (Italia), Dark Side (Britainia Handia), Toxic (Frantzia) edo Shocking News (Holanda) dira, besteren artean. Era berean, Dirigido edo Cahiers du Cinema bezalako argitalpen zinematografiko generalista garrantzitsuak bertaratu dira.



Giza Eskubideen V. Zinemaldia



Martxoaren 16tik 23ra egin da Giza Eskubideen Zinemaldiaren bosgarren edizioa.

32 film eman dira eta guztira 15.990 ikuslek ezagutu dituzte zinemaldiaren barruan antolatutako jarduerak: zine-proiektzioak, dantza-ikuskitzuna, erakusketak edo kontzertuak. Filmetan giza eskubideekin erlazionatutako gaiak landu dira. Gai horien artean aipa daitezke: adimen-gaixotasunak, heriotza duina izateko eskubidea, Afrika, emigrazioa, adiskidetzea, genero-identitatearen eskubidea, nazioarteko terrorismoa, haurren eskubideak, memoria historikoa, arrazakeria edo lan duin bat izateko eskubidea. Proiektzioen ondoren, gainera, elkarrizketak antolatu dira filmeko gaiaren inguruan. Elkarrizketa horietan ikusleek parte hartu dute eta, ikusleekin batera, filmen zuzendariak, erakundeak, gizarte-taldeak, elkarteak, GKEek eta landutako gaiarekin erlazionatutako pertsonak parte hartu. Besteak beste, aipamen berezia merezi dute ondorengoek: Vicenç Fisas, Bartzelonako Unibertsitate Autonomoko Bakearen Kulturaren Eskolaren zuzendaria, Adriano González-Reguer, UNICEF-Haiti erakunde ordezkaria, Ione Hernández, Mariano Barroso eta Javier Corcuera errealizadoreak eta Javier Bardem aktorea, Invisibles filmaren produktore bezala azken hori.

Giza Eskubideen Zinemaldiak Sari Berezia eman zion Pilar Bardem aktoreari, orain arteko ibilbide profesionala eta giza eskubideen defentsaren alde egindako lana aitortzeko.





• BILDUMAK:

Museoaren inbentarioa:

	Objektuak
Arkeologia	642
Arte Ederrak	6.281
Etnografia	5.196
Argazkilaritza	8.575
Historia	2.264
GUZTIRA	22.958

Bildumara pieza berriak gehitu dira. Izan ere, bi dohaintza garrantzitsu egin dira: XIX. eta XX. mendeko objektuek osatzen dute bat eta objektu eta lan artistikoek bestea.

• BISITARIAK:

Banakoak	9.644 ¹⁴
Taldeak	3.445
GUZTIRA	13.089

• LANKIDETZAK:

Aurreko urteetan bezala, Museoak, "la Caixa" Fundazioarekin lankidetzan, erakusketa bat antolatu du. Oraingoan Igor Mitoraj-en eskulturak jarri dira Zurriola pasealekuan, udan.

San Telmok, gainera, Donostiako museoaren sarean lan egiten jarraitzen du. Iaz sortu zen aipatu sarea eta indartzea lortu da aurten, eta egindako ibilbidearen balantzea oso positiboa dela azpimarratu behar da. Zentzu horretan, aurten bi mugarri edo gertaera oso garrantzitsu azpimarratu behar dira: alde batetik, informazio-liburuxka bateratu bat argitaratu da eta, bestetik, are garrantzitsuagoa dena, Donostiako museoaren sarearen aurkezpena egin da, joan den maiatzaren 18an hain zuzen ere, Museoaren Nazioarteko Egunarekin bat eginez. Horrez gain, hiriko zazpi museoek hainbat lankidetzaproiektu garatu dituzte eta, horien eskutik, Gabonetarako jarduera-eskaintza bateratua egitea lortu da.

Urtean 150etik gora kontsulta eta eskariri erantzun zaie, gehienak museoko bildumei edo piezei buruzkoak eta argitalpen batzuk irudiz hornitzeko egin izan direnak.

• BERRIKUNTZA PROIEKTUA:

Logikoa den moduan, Museoak berrikuntza-proiektuan murgilduta dago jada. Aurten garatutako lanaren zati handi bat proiektu horrekin erlazionatutako alderdiei dagokie.

Gero Arte: museoaren berrikuntza ezagutzera emateko landu da proiektu hau eta urte osoan egindako lanaren zati handi bat hartu du proiektuak. Berrikuntza-proiektuari buruzko azalpenak eta informazioa barne hartu dira erakusketa iraunkorrean, martxoetik aurrera eta, era berean, herritarren artean ezagutzera emateko lan handia egin da. Esanak esan, museoaren eta kulturaren munduko profesionalen bilerak egin dira eta, era berean, auzotarrei, museoaren lagunei eta, oro har, jendeari, San Telmo Museoaren barrualdea ezagutzera emateko

jarduerak antolatu dira. Bisitaldi horietan museoak etorkizun laburrean izango duen itxura erakusten da. Bisitaldiak aldeztu aurretik eskatu behar dira.

Uztailaren 16tik aurrera erabat itxi zen San Telmo Museoa, bertako lanak aurrera atera ahal izateko. Jendaurreko jarduera bakar bat eskaini da hortik aurrera, hain zuzen, Gero Arte proiektuaren barruan hitzartutako bisitak, abuztuaren 19a arte.

2007an egindako birgaitze-lanaren zati handiena kontserbazio-birgaitzea izan da. Zentzu horretan, azpimarratzekoa da altzarien gainean egindako lana, lekuz aldatu aurretik, bai eta San Telmoko elizan Sert mihiseen gainean egindakoa ere, proiektu berria garatu ahal izateko. Azpimarratzekoak dira, halaber, udal-ondarearen gainean egindako esku-hartzeak: Aieteko Jauregia, Victoria Eugenia Antzokia eta Casares Etxea.



¹⁴ Datu hau baloratzeko kontuan hartu behar da museoa uztailetik aurrera itxita egon dela eta, ondorioz, 2007an ez dela aldi baterako erakusketarik antolatu.

Museo San Telmo



Apirilaren 13an jarri zen Museoa zabaltzeko egingo den eraikinaren lehen harria eta proiektuko obrei ekin zitzairen. Aipatu proiektua datozen urteetan garatzea aurreikusi da. Kultura Ministerioak proiektura 8 milioi euro bideratuko dituela esan du, Eusko Jaurlaritzak milioi bat euro emango duela esan du eta beharrezkoa den gainerakoa, 15 milioi euro, Udalak berak jarriko du.

Museoaren egoitzako lanekin batera, Elbira Zipitria kaleko egoitza berrirako lekualdaketarekin jarraitu da.

Gipuzkoako Foru Aldundiarekin lankidetzaren hitzarmen bat sinatu zen San Telmo eta Santa Teresa multzoaren garapena egiteko eta, horri esker, Museoaren behin-behineko bulegoak Alde Zaharrean bertan kokatu dira, Santa Teresa komentuan hain zuzen ere.

Horrela, 2007an gehien landu den alderdietako bat Santa Teresaren prestakuntza eta exekuzioa izan da. Plangintza zehatz bat egin behar izan da, horrelako lekualdaketa garrantzitsu bati behar den bezala erantzuteko. Izan ere, Museoan erakusten eta gordetzen ziren fondo guztiak lekuz aldatu behar izan dira, bai eta material guztia eta bulegoko lanpostu guztiak ere. Prozesu horren barruan, koadroak biltegiratzeko kako berriak jarri direla azpimarratu behar da.

2007an Museoak aurkeztu dituen edukietan gehiago sakondu nahi izan da. Zeregin horretan batzorde zientifiko batek parte hartu du eta Museoko teknikarien lanaren babesa eduki du.

• URGULL

Ekainaren 29an inauguratu zen “Donostiari begira” izeneko erakusketa, Mota gazteluaren Historiaren Etxean. Erakusketak izaera iraunkorra du eta jatorrizko objektuak, maketa, ikus-entzunezkoak eta teknologia berriak baliatzen dira talaia eder honetatik hiriarren historiako 800 urtetan bidaiatzeko. Erakusketaren inguruan lortutako datuei erreparatu, erakusketak bisitari zein donostiar ugari erakarri dituela azpimarratu behar da.

Erakusketa hau prestatzeko, Museoko fondoetatik hainbat pieza zaharberritu behar izan ziren eta zaharberritu egin ziren, halaber, Urgulleko zazpi kanoiak.

Esandako guztiaz gain, bisitaldi gidatuak antolatu dira eta eskola-umeengana zuzendutako jarduera-programa bat abian jarri da.

Bisitariak:
Banakakoak 54.736
Taldeak 552
GUZTIRA 55.288



Aldi baterako erakusketak



Kultur Etxeak

	Kop.	bisit.
Pintura	20	9.779
Artisautza	2	829
Marraskia	7	4.503
Argazkia	10	6.453
Tematikoak	21	23.530
Hainbat	8	2.764
GUZTIRA	68	47.858

Victoria Eugenia

	Kop.	bisit.
Tematikoak	3	6.643
GUZTIRA	3	6.643

Liburutegiak

	Kop.	bisit.
Marraskia	2	600
Argazkia	1	300
Tematikoak	12	4.200
Hainbat	1	155
GUZTIRA	16	5.255

Aldi baterako erakusketetako bisitariak guztira: 59.756

Jarduerak eta argitalpenak: guztira, 42 jarduera egin dira eta 11 argitalpen atera dira aldi baterako erakusketekin lotuta. Guztiak kultur etxeetan antolatuta dira

Jarduerak: Kultur Etxeak, 42

Argitalpenak: Kultur Etxeak, 11

Jarduera horietan parte-hartzaileak: Kultur Etxeak, 2.519

Aurreko urteetan bezala, Donostia Kulturak aldi baterako erakusketa-eskaintza zabala mantendu du. Aurten, haatik, San Telmo Museoa ez da horrelako erakusketarik egin, izan ere, birgaitze- eta handitze-proiektuan bete-betean dago aipatu eraikina. Atal honetan, beraz, kultur etxeetan egin diren erakusketen berri ematen da eta, horien artean, azpimarratzekoak dira, esparruan duen espezializazio handiari esker, Okendo Kultur Etxean egindako erakusketak. Era berean, azpimarratzekoak dira beste hainbat espaziotan egindakoak, hala nola udal-liburutegietan egindakoak –Alderdi Eder, San Jeronimo kaleko jarduera-aretoa-, eta Victoria Eugenia Antzokiaren berrinaugurazioa.





2007. urtean aldaketa asko egin dira festen arloan. Kultur eta Turismo Ekintzetxea, gure hiriko jai-ekimen nagusietan aitzindaria, desagertu egin da. Ekainaren 1etik aurrera, Festen Unitate gisa integratu da Donostia Kultura enpresa-erakunde berrian. Hiriko festa-jarduera ofizial guztietan parte hartu du eta lagundu du eta herritarrek osatutako elkarte ugari eta anitzekin batera lan egin du festen kudeaketa, koordinazioa eta laguntza ekonomikoa erraztuz. Ondoren aipatu dira 2007an antolatu ditugun jarduerak:

ERREGE MAGOAK:

Errege Magoen etorrera eta harrera, haur donostiarrentzat. Hiriko erdialdeko kaleetatik desfilea, 18:00etatik aurrera. Laguntza-zentroetara eta ospitaletara bisitak.

Talde kop.	13
Parte-hartzaileak	525
Karrozak	4
Fanfarreak	4
Gozokiak	2100 Kg.

HAUR DANBORRADA:

Easo Ederra, Generala, Laguntzailea, Damak eta Zaldizainak, Compañía de María ikastetxeak; Danbor Nagusia, La Asunción ikastetxeak. Desfilea: 12:00etatik aurrera, Alderdi Ederretik Legazpi kalera.

Talde kop.	47
Parte hartzaileak	4.540
Ikusleak, gutxi gorabehera	30.000

HELDUEN DANBORRADA – BANDERA JASOTZEA

Donostiako Bandera jasotzearekin batera hasten dira hiriko zaindariaren omenezko jai-ekitaldiak. Hiriko danborrada guztietako ordezkariak eta Gaztelubide Elkarteko danborrada Konstituzio Enparantzan elkartzen dira, jendez inguratuta (gehiengoa gazte jendea izaten da).

Talde kop.	74
Parte hartzaileak	235
Ikusleak, gutxi gorabehera	2.500

URREZKO DANBORRA

Donostiaren izena eta funtsa ezagutzera emateagatik jasotzen den ohorezko saria da. 2007ko ekitaldian parte hartu zuten: Donostiako Orfeoia, Orfeón de la Castaña delakoak, Unión Artesana elkarteko danborradak eta hainbat dantzarik eta txistularik. Donostiako Orfeoiko lehenakariak hitz egin zuen omenutako pertsonaren inguruan.

2007ko Urrezko Danborra: Pedro Abrego Velasco





KALDEREROAK

Festan parte hartutako tribu kopuruak nabarmenki egin du gora.

Tribu kop.	18
Parte hartzaileak	348

INAUTERIAK

Desfileak, parodiak, mozorro-txapelketak, ibiltokiak, musika eta kaleetan jai-giroa. Sardina-ehorzketa eta inauterietako konpartsa historikoak (Lanpernak, Oilarrak, Lorezainak, eta abar). Programatutako jai-ekitaldi guztietan parte-hartzea hobetu da.

Jarduera kop.	82
Parte hartu duen konpartsa kop.	31
Parte-hartzaileak	2.520
Ikusleak, gutxi gorabehera	20.000 pert./egunean

SU ARTIFIZIALEN NAZIOARTEKO 44. LEHIAKETA

Parte hartu duten piroteknika-etxeek erakutsitako maila bikaina izan da. Diseinu bikaina eta originaltasuna dira produktu paregabe honen ezaugarri nagusiak, eta gure badian ikus daitezkeen tiro bakoitzaren eta guztien kalitate izugarri handia azpimarratu behar da. 4 piroteknika-etxe nazional eta atzerriko beste 4.

Parte hartu duten piroteknika-etxeak 8
Ikusleak, gutxi gorabehera ikusle/gaueko
Palmaresa:

Urrezko Maskorra: Lidu Fireworks (Txina)
Zilarrezko Maskorra: Ricardo Caballer S.A. (Valentzia)
Brontzezko Maskorra: Flash Art (Alemania)
Gazteen Saria: Ricardo Caballer S.A. (Valentzia)
Herritarren Epaimahaiaren Saria: Ricardo Caballer S.A. (Valentzia)

SAN JOAN BEZPERA

Lekua: Konstituzio enparantza
Goizaldi Dantza Taldearekin batera garatutako jarduera. Aipatu taldeak San Joanen Zortzikoa dantzatzan du, eta San Bizenteko parrokoak zuhaitza bedeinkatu eta gero, "Gizon dantza". Ekitaldiarekin amaitzeko sua pizten da.

ASTE NAGUSIA

Zortzi egun bizi-bizi, jarduera, truke, musika, ikuskizun eta bisitari ugarirekin. Jai-espazioen erabilera sendotu da eta jendetza hurbildu da kontzertu handietara. Programazio anitza. Ikusle ugari eta anitzak.

Eszenategi kop.	9
Jarduera kop.	210
Musika-emanaldiak	108
Antzerkia	7
Dantza-taldeak	7
Tailerrak	5
Haur-jarduerak	21
Zezensuzkoa	42
Landa-kirola	2
Hainbat jarduera	18





DONOSTIA HIRIA XVI. POP-ROCK LEHIAKETA

Lan diskografikorik argitaratu ez duten Gipuzkoako talde guztiek parte hartzeko lehiaketa.

Palmaresa:

1. postua: Lolos Club (Donostia)
2. postua: Iam Raros (Donostia)
3. postua: Vostok (Zarauz)

EUSKAL JAIAK

Folklore, kultura eta tradizioa jai-jarduera batean bilduta.

Jarduera kop.	39
Musika-emanaldiak	11
Dantza	5
Kirola	10
Haur-jarduerak	3
Hainbat jarduera:	
Azoka, Eusko Label-en eguna	10



ESTROPADAK: KONTXAKO BANDERA

Kostalde kantabriarreko arraun-talderik onenak elkartzen dira iraileko lehen igandeetan ospatzen diren hiru estropadatan.

Parte hartu duen klub kop.:	22
Sailkatutako klubak	8
Ikusleak, gutxi gorabehera	30.000 ikusle/egunean
Klub irabazlea:	C.R. Orio

SANTO TOMAS AZOKA

Donostia bertako produktuak, tokiko artisautza, hainbat erakusketa, lehiaketa eta musika erakusteko eta ikusteko eszenategi bihurtzen da. Egun bikaina da kalean ibiltzeko, postu batetik bestera, mota orotako produktuak dastatuz; era berean, programatutako aisialdiko eskaintzaz goza daiteke.

Jai-espazioak	7
Postu kop.	193
Ikusleak, gutxi gorabehera	50.000

LEHIAKETAK:

“José Salaberria Memoria”

Palmaresa:

José Manuel Zabalegi (Donostia)

Barazki Lehiaketa:

Palmaresa:

1. saria: José Manuel Zabalegi (Donostia)
2. Saria: Jesus Artola (Anoeta)
3. Saria: María Etxezarreta (Gabiria)

Fruitu Lehiaketa

Palmaresa:

1. Saria: Maddi Iradi (Hernani)
2. Saria: María Etxezarreta (Gabiria)
3. Saria: Anttoni Murgiondo (Gabiria)

Donostialdeko III. Ezti Lehiaketa

Palmaresa:

1. Saria: Patxi Franco (Andoain)
2. Saria: Miren Usarralde (Hernani)
3. Saria: Ramon Fernandez (Donostia)

Euskal Herriko XII. Txistorra Lehiaketa

Palmaresa:

1. Saria: Obrador Loidi (Orio)
2. Saria: Deba Harategia (Ormaiztegi)
3. Saria: Txarri-Txiki (Aia)

Txorimaloen I. Lehiaketa

Palmaresa:

1. Saria: La Anunciata Ikastetxea
 2. Saria: Alegría de Alza konpartsa
 3. Saria: Mariaren Bihotza Ikastetxea
- Hobekien girotutako postuaren Saria
Santa Teresa ikastetxea

OLENTZERO

Ikazkin zintzoa hirira jaisten da etxeko txikienak alaitzera.

Harrera, dantzak, ipuinak, gaztainak eta ikatza. Gabonak iritsi dira.

Talde kop.	9
Parte-hartzaileak	500
Gaztainak banatzea	100 kg.

DONOSTIA KULTURA FESTAK UNITATEAK KUDEATUTAKO JARDUERAK

• BAIMENEN KUDEAKETA EDOTA AZPIEGITURAK UZTEA

AUZOETAKO JAIAK

Jai kop. 29

HAINBAT AUZOTAKO KALDEREROAK

Konpartsa kop 20

INUDE ETA ARTZAINEN KONPARTSAK

Konpartsa kop 4

HAINBAT AUZOTAKO OLENTZERO

Talde kop 23

ESKUALDEETAKO ETXEEN JAIAK

Jai kop. 7

HAINBAT TALDE 40



SENIDETZEAK

Gaur egun Donostia sei hirirekin dago senidetua: Wiesbaden, Trento, Plymouth, Marugame, Reno eta Bojador. 2007an ondorengo ekimenak garatu dira:

WIESBADEN

Gaztedi Elkarteak (Oilarren Konpartsa eta Aita Donostia Korua) Tehatrium 2007ko ekitaldietan parte hartu du eta Wilhelmstrasse-ko festetan (ekainean) parte hartu du halaber.

Wiesbadenen Txakolinaren Feria antolatzeko lankidetzaz.

Ikasle donostiar batek Johannes Gutenberg Unibertsitateko Udako Ikastaroetan parte hartu du alemana hobetzeko (abuztuan).

Kultur Astean eta Taunusstrasse-ko festetan (irailean) parte hartu du Lorezainen Konpartsak

Wiesbadeneko enpresa-ordezkaritza batek gure hirira egindako bisitan lagundu da (irailean).

Gaztelubide Elkarteak Coro de la Castaña Wiesbadenen egon da (urrian).

TRENTO

Easo Saskibaloitza taldeak urtero nazioartean antolatzen den txapelketan parte hartu du (maiatzean)

Donosti Kayak Klubak urteko herriko festak direla eta ospatzen den "Palio dell'Oca" izeneko txapelketan parte hartu du (ekainean)

Donostiara izaera ekonomiko-enpresarialeko ordezkari bat etorri da (uztailean).

MARUGAME


Sariak trukatu dira kirol-txapelketatan banatzeko.

Donostiar bat Marugamen egoteko izaerak. Helburua japonieraren ezagutza hobetzea da (apirila).

PLYMOUTH

"Denham Productions" produktora Donostian izan da hiriri buruzko erreportaje bat grabatzeko.





hemen gaude estamos aquí

A. Casares - Tomasene

Darieta bidea, 1 (Alta)
Tel.: 943 351149 • casares@donostia.org

B. Altza

Larratxo pasealekua, 55
Tel.: 943 396494 • casares@donostia.org

C. Ernest Lluch

Anoeta pasealekua, 7 (Amara)
Tel.: 943 481919 • amara@donostia.org

D. Larrotxene

Intxaurrenondokalea, 57 (Intxaurrenondokalea)
Tel.: 943 291954 • larrotxene@donostia.org

E. Intxaurrenondokalea Berri

Gaztela-Castilla, 2
Tel.: 943 279343 • larrotxene@donostia.org

F. Loiola

Aralar kalea, 17
Tel.: 943 454605 • loiola@donostia.org

G. Lugaritz

Heriz pasealekua, 20 (Antiguo)
Tel.: 943 310780 • lugaritz@donostia.org

H. Okendo

Nafarroa hiribidea, 7 (Gros)
Tel.: 943 290672 • okendo@donostia.org

I. Egia

Baztan, 21
Tel.: 943 291514 • egia@donostia.org

J. Liburutegi Nagusia Biblioteca Central

Alderdi Eder, z/g • Tel.: 943 481488
liburutegia_alderdieder@donostia.org

K. Liburutegi Nagusia, Haur Saila. Biblioteca Central, Sección Infantil.

Fermín Calbetón, 25 • Tel.: 943 420018
haurliburutegia@donostia.org

L. DONOSTIA KULTURA

Konstituzio plaza, 1 • Tel.: 943 481150
donostiakultura@donostia.org

M. Antzoki Zaharra Teatro Principal

Kale Nagusia / Calle Mayor, 3
Tel.: 943 481970 • taquilla@donostia.org

N. Victoria Eugenia Antzokia

Argentinako Errepublikakalea, 1
Tel.: 943 481160 • victoria_eugenia@donostia.org

O. San Telmo Museoa

Zuloaga plaza, 1
Behin behineko bulegoak / Oficinas provisionales:
Andereño Elbira Zipitria, 1
Tel.: 943 481580 • santelmo@donostia.org

P. Historiaren Etxea Casa de la Historia

Motako Gaztelua / Castillo de la Mota, Urgull
Tel.: 943 428417 • santelmo@donostia.org

